



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

JUSTIZIA TRANTSIZIONALA EUSKAL HERRIARENTZAT: AZTERKETA KRITIKO BAT

ZUZENBIDE GRADUA – 2015-2016 IKASTURTEA
GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Lore Mendizabal Zubiaurre
ZUZENDARIA: Joxerramon Bengoetxea Caballero

Donostian, 2015eko maiatzaren 17an

JUSTIZIA TRANTSIZIONALA EUSKAL HERRIARENTZAT: AZTERKETA KRITIKO BAT

0. Sarrera	2
1. Justiziaren teoriak.....	3
2. Justizia trantsizionalaren kontzeptua eta edukia.....	4
3. Justizia trantsizionalaren beharra Euskal Herrian	8
A. “Gatazka”	8
- Gatazka politikoa.....	9
- Indarkeriazko gatazka	10
- Bien arteko harremanak	12
B. Gatazken ebazpenaren beharra	13
C. Euskal gatazkaren ebazpena zein egoeratan dago?	15
D. Justizia trantsizionala gatazken ebazpenerako tresna eraginkor eta ezinbesteko bezala.....	21
4. Justizia trantsizionalaren aplikazioa Euskal Herrian	26
A. Hartu diren neurriak.....	26
a) Estatuak	27
b) Autonomia Erkidego mailan	32
B. Hartutako neurrien mugak	38
C. Proposamena.....	42
5. Ondorioak	45
6. Bibliografia	47
7. Txostenak	49
8. Jardunaldiak	52
9. Albisteak	52
10. Jurisprudentzia.....	53
11. Araudia	54
12. Eranskinak.....	
1. eranskina: Gatazkaren aurrekariak.....	
2. eranskina: Gatazka politikoaren inguruan gogoeta batzuk	
3. eranskina: ETA-ren behin-betiko su etenaren arrazoien inguruko gogoeta:	

0. SARRERA

ETAk borroka armatuaren behin betiko etenaldi atzeraezinaren bidez, 2011ko urriaren 20an amaiera eman zion 53 urteko jardunari. Momentu horretatik, biktimen, presoen, adiskidetzearen inguruko politikak egunerokotasuneko eztabaida gai izan dira.

Gau hauek, justizia trantsizionaleko gaiak badira ere, sektore batzuek justizia trantsizionala terminoa bera eta honek nazioartean dituen inplikazio eta edukiak eztabaida horietatik at kokatu nahi dute. Kontraesan honek nahasmena sortzen du aipaturiko politika horien irizpideen inguruko eztabaidan.

Egoera honen aurrean, eztabaida hori justizia trantsizionalaren eremura eramateak izan ditzakeen onura eta garrantziaz gogoeta egin dut. Aldi berean ekarpen bat egin nahi izan dut, euskal kasuan aplikatu beharko litzatekeen justizia mota egokienaren inguruko eztabaidara.

Honetarako, ezinbestekoa izan da justizia trantsizionalaren azterketa sakon bat egitea, interes alderdikoiak eta borroka terminologikoak alde batera utzita.

Hasteko, justizia trantsizionala kontzeptuaren azterketa teorikoa egin dut, bere egitura eta barne dinamika aztertuz, tresna honen nondik norakoak azaltzeko.

Bigarrenik, Euskal Herrian bizi izan ditugun gatazken diagnostikoa, eta orokorrean justizia trantsizionalak hauen ebazpenean egin ditzakeen ekarpenak aztertu ditut, gatazkek eta justizia trantsizionala harremanetan jarriz.

Azkenik, euskal gatazkaren kasuan justizia trantsizionalak izan dezaken aplikazioaren inguruan gogoeta egin dut, orain artean iraganbidearen harira hartutako neurriak aztertuz eta errealitate honek dituen mugak ikusita hauek gainditzeko justizia trantsizionalaren aplikazio zehatzaren proposamena eginez. Hartaz, de *lege ferenda* edo de *politika ferenda* ikuspegia hartzen dut hein batean.

Beraz, justizia trantsizionala hiru plano horietan aztertuz atera ditut ondorioak, zabaletik murriztena: alor teoriko orokorra, gatazken konponketa edo ebazpenaren eremura emanda, eta azkenik gure kasu konkretuko aplikazioa. Plano bakoitzetik ateratako ondorioak osagarriak dira, tresna honek gure testuinguruan izan dezaken garrantziaren eta egin dezaken ekarpenaren inguruan balorazio sakonago bat ahalbidetzen dutelarik.

Informazio edo **iturri** bila, alde batetik justizia trantsizionalaren inguruko teoria orokorretara jo dut, bai nazioarteko organoen txostenen bidez edo zeharkako iturri moduan adituen lanak kontsultatuz. Horrez gain, nazioarteko zuzenbide publiko zein espainiar estatuko eremu normatiboa aztertu dut. Halaber, aplikatu den kasuetatik

baliagarriak izan daitezkeen ondorio praktikoak jaso ditut adituen lanetara joz. Azkenik, Euskal Herriko eta Espainiar estatuko errealitatea ezagutzeko batez ere albisteetara eta txosten ofizialetara jo dut, baina horrez gain adituek egindako ekarpenen batzuetatik ere jaso dut informazioa.

1. JUSTIZIAREN TEORIAK

Egunoa moduko gizarte konplexuetan, urte luzez bizirik egon diren gatazka politiko eta sozialak ditugu, gizartean zauriak eragin dituztenak, besteak beste giza eskubideen urraketek bide eman dieten aldetik.

Justiziaren teoria ezberdinak planteatzen dira gai hauen aurrean, eta eztabaida egon izan da horietako zein den testuinguru bakoitzean egokiena. Baditugu [ordainkaria](#) (tradizionala), errestauratiboa, transakzionala, trantsizionala etab. Justizia ulertzeko modu hau eztabaida filosofiko juridikoaren parte da eta aldi berean jarduera sozio politikoa bideratuko duen eztabaida batean datza. Beraz, erabaki hauek botere publikoak lotzen dituzte, helburu konkretuak lortzera bideratua egongo delarik beren jarduera.

2. JUSTIZIA TRANTSIZIONALAREN KONTZEPTUA ETA EDUKIA

Justizia trantsizionala XX. mendeko 80 eta 90 hamarkadetan sortu zen, Latinoamerikako eta Ekialdeko Europako gatazkei eta haren ondorioei aurre egiteko. Zuzenbideak iraganbidea erraztu behar zuen, diktadura eta giza eskubideen urraketa garai batetatik giza eskubideen errespetu osoa egongo zen estatu demokratiko berri bat eraikitzeko. Diktaduratik demokraziarako trantsizioak, ondorioz, izena eman zion zuzenbide-arlo berri honi. Justizia ez dago trantsizioan, gizartea dago trantsizioan.

Iraganbide horretan laguntzeko ikusi zen justizia penala ez zela nahikoa eta beraz, justizia modu berriak asmatu zituzten: egia batzordeak, ikerketa penal berriak, biktimei laguntzeko programa bereziak, erakundeen aldaketa estrukturalak, gertatutakoaz gogoratzeko ekitaldiak etab.

Beraz, giza eskubideen eskala handiko urrapenetatik ondorioztatutako arazoak konpontzearen gizarte batek egiten dituen ahaleginekin lortutako prozesu eta mekanismo guztiak (judizial zein politiko -judizioz kanpoko-) osatzen dute Justizia trantsizionala. Formula bat posible egiten duena biktimei eta gizarteari orohar bakea,

justizia eta adiskidetzea eskaintzea¹. Justizia abordatzeko modu bat baino gehiago dela esan daiteke beraz.

Termino gisa eta lan esparru gisa duela 23 urte gutxi gora-behera sortu zen, giza eskubideen ikuspegi tradizionala zabalduz. Hasiera batean diktaduren harira sortu ziren gatazkak demokraziarantz bideratzeko sortu bazen ere, bere jatorri historikoa gaudituz joan da, orohar giza eskubideen urraketa larriak konpondu gabe dituzten herrialdeetako iraganbidean lagunduz. Beraz, esan daiteke, giza eskubideen urraketa arazoak eta indarkeria kolektiboaren ondorioen arazoak konpontzeko tresna dela.

Bere **edukiari** dagokionean, justizia trantsizionala nazioarteko zuzenbideak egindako exigentzia juridikoak zein exigentzia politikoak (adiskidetzea, bakea, demokrazia, giza eskubideen errespetu osoa)² bermatzera bideratzen da, zentzu orekatu batean.

Giza eskubideen urraketaz nazioarteko zuzenbide publikoa arduratzen da. 2005eko abenduan, Nazio Batuen Batzar Nagusiak biktimaren 1985eko definizioan oinarrituta³, biktimen eskubideak babesteko hainbat printzipio eta jarraibide onartu zituen⁴. Honen arabera, biktimei nazioartean hainbat eskubide aitortzen zaizkie: besteak beste egia, justizia, erreparazioa eta berriro gertatuko ez denaren bermea. Honen harira, NBE inpunitatearen aurka bideratzeko printzipioak argitaratu zituen baita ere.⁵ Bestetik, aipagarri da nazioarteko zuzenbideak biktimek erabakietan partaidetza izatea praktika on bezala gomendatzen duela.

Ebazpen hauetatik abiatuta lau pilare edo zutabe bereizi daitezke justizia trantsizionalaren baitan, aipaturiko biktimen eskubideekin zuzenean lotuak daudenak. Pilare bakoitzaren bermea lortu beharra dago, eta horretarako neurri jakin batzuk jarri

¹ *The rule of law and transitional justice in conflict and post-conflict societies* S/2004/616, Nazio Batuen Erakundearen Idazkari Nagusia, 2014ko abuztuaren 23an. <http://www.ipu.org/splz-e/unga07/law.pdf>

² GREIFF, P. "A normative conception of Transitional Justice". *Politorbis*, 50 zk., 2010, 20 orr. <file:///C:/Users/lore/Downloads/ch+2.pdf>

³ *Declaración sobre los principios fundamentales de justicia para las víctimas de delitos y del abuso de poder* 40/34, Natuen Batzar Nagusia, 1985eko azaroaren 29an. <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/VictimsOfCrimeAndAbuseOfPower.aspx>

⁴ *Principios y directrices básicos sobre el derecho de las víctimas de violaciones manifiestas de las normas internacionales de derechos humanos y de violaciones graves del derecho internacional humanitario a interponer recursos y obtener reparaciones* 60/147, Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2005eko abenduaren 16an. <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RemedyAndReparation.aspx>

⁵ *Conjunto de principios actualizado para la protección y la promoción de los derechos humanos mediante la lucha contra la impunidad*, anexo al informe de Diane Orentlicher, experta independiente encargada de actualizar el conjunto de principios para la lucha contra la impunidad E/CN.4/2005/102/Add, Giza Eskubideen Komisia, 2015eko otsailaren 8an http://ap.ohchr.org/documents/dpage_s.aspx?si=E/cn.4/2005/102/Add.1

behar dira martxan, gizarte edo gatazka-kasu zehatz bakoitzean egokitzen joango direnak.

Egiarako eskubideari dagokionez, indarkeria eta giza eskubideen urraketa larriak eragin zituzten arrazoiak, genesisia, egoerak ikertzeko obligazioa da. Ez da soilik biktimen eskubide bat, gizarte osoarena ere bada. Egia eraikuntza sozial bezala ulertu beharra dago, interpretazio ikuspegiaren aniztasunaren aurrean lortu behar den egia soziala, egia partikularren arteko batuketa bat izango dena.

Obligazio hau praktikara eramateko mekanismo ezagunena “egiaren batzorde” deituak izan dira. Dena dela, posible da beste bide batzuk erabiltzea, adibidez jada lortuta dagoen informazio guztia (artxiboetan etab) aztertu eta horietatik abiatuta ondorioak ateratzea.

Justiziari/zigorrari dagokionez, eskubide honek estatua derrigortzen du giza eskubideen urraketa larrien errudunak ikertzera, prozesatzera eta zigortzera. Beraz, estatuak ezingo ditu mekanismo judizialak oztopatu, edo hauen lana oztopatu. Horrez gain, urraketak era eraginkor, bizkor, oso eta inpartzian bideratu behar dituzte, giza eskubideen edo zuzenbide humanitarioaren urraketaren biktimei justizia lortzeko ekitatezko eta benetako aukera eskainiz, urraketaren erantzulea edozein izanik ere.⁶

Beraz, martxan jarri beharreko neurriak orokorrean ordainsarizko justizian oinarritzen dira, bertan arau juridikoak urratu zituzten portaerak jazartzeko eta zigortzeko neurriak sartuko direlarik. Dena dela, justizia errestauratibozko edo transakzionalen neurriak ere erabili daitezke helburu hau erdiesteko.

Erreparazioari dagokionez, biktimaren kalte material eta moralak era integralean konpontzera bideratua dago, ahal den neurrian berrezarrit giza eskubideen urraketa aurretiko *status quo*⁷.

Beraz neurriak, justizia leheneratzailearen barruan sailka daitezkeenak izango dira, eragindako kalte konpontzera bideratuak daudenak, eta biktimak jartzen dituen erdigunean. Neurriak kalte ordainezkoak izan daitezke arlo materialean, eta sinbolikoak

⁶ *Principios y directrices básicos sobre el derecho de las víctimas de violaciones manifiestas de las normas internacionales de derechos humanos y de violaciones graves del derecho internacional humanitario a interponer recursos y obtener reparaciones* 60/147, Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2005eko abenduaren 16an. <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RemedyAndReparation.aspx>

⁷ Lehengoratzek, kasuaren arabera, honako hauek biltzen ditu: askatasunaren berrezartzea, giza eskubideez, identitateaz, familia-bizitzaz eta herritartasunaz gozatzeko aukera, bizilekura itzultzea, enplegua itzultzea eta ondasunen itzultzea.

arloan moralean (barkamen eskaerak, omenaldiak, irain ordaintzeak, beren istorioa kontatzeko aukera ematea etab).⁸

Azken eskubidea, gertaturikoa **berriro errepikatuko ez denaren** bermea litzateke. Batzar Nagusiaren 2005eko ebazpenak⁹ urraketak saihesteko honakoak gomendatzen ditu: botere judizialaren independentzia gogortzea, bakea eta giza eskubideen kulturaren sustapena, giza eskubideen urraketek laguntzen dieten legeen aldaketak, gatazkak ebazteko mekanismoak sustatzea etab¹⁰.

Helburu honetara bideratutako neurriak instituzional dei dezakegun justizia baten barnean egongo lirateke, eta horrela sailkatu dezakegu giza eskubideen urraketa larrietan parte hartu duten instituzioen erreforma.¹¹

Guzti honetan, biktimen inguruko posizio inklusibo bat ezinbestekoa da, diskriminaziorik gabea. Urraketa berdinei egia, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa jasotzeko eta diskriminaziorik ez jasateko eskubide berdinak dagozkie.¹²

Horrez gain, esan beharra dago, giza eskubideen urraketa larrietarako hurbilketa modu orokor batean egin behar dela, aipatutako elementu bakoitza bermatuz eta beren artean harremandutako sare trinko bat osatuz (holistikoa).¹³

Exigentzia politikoei dakionean, **adiskidetzea** aipatu dugu. Adiskidetze bi plano bereizi behar dira. Plano kolektiboan, zauriak itxi beharra daude eta gizarte harremanak

⁸ ITURBE, A. "Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 12ko 107/2012 dekretua, Justizia trantsizionalaren testuinguruan", LANDA Jon-Mirena (zuz. Zientifikoa), *Justizia Trantsizionala: proposamenak Euskal Herriarentzat*, Institut Universitaire Varenne. Collection Transition & Justice, 2014, 51 orr.

⁹ *Principios y directrices básicos sobre el derecho de las víctimas de violaciones manifiestas de las normas internacionales de derechos humanos y de violaciones graves del derecho internacional humanitario a interponer recursos y obtener reparaciones* 60/147, Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2005eko abenduaren 16an. <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RemedyAndReparation.aspx>

¹⁰ *Principios y directrices básicos sobre el derecho de las víctimas de violaciones manifiestas de las normas internacionales de derechos humanos y de violaciones graves del derecho internacional humanitario a interponer recursos y obtener reparaciones* 60/147, Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2005eko abenduaren 16an. <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RemedyAndReparation.aspx>

¹¹ JOINET-ek "giza eskubideen urratzaileen inpunitearen kontua" txosteneko kontalari bereziak honen inguruan esaten du, erreforma instituzional sakona ezinbestekoa dela, batez ere estatuaren segurtasun indar eta erakundeena, armadarena eta botere judizialarena, giza eskubideak urratzeko beharrezko tresna edo tresna lagungarri izan diren neurrian. *The Administration of Justice and the Human Rights of Detainees. Question of the impunity of perpetrators of human rights violations (civil and political)* E/CN.4/sub.2/1996/18, Nazio Batuen Giza eskubideen babesa eta sustapenerako azpi-komisioa, Joinet, L., 1996ko ekainaren 20an. https://www1.umn.edu/humanrts/demo/RightsofDetainees_Joinet.pdf

¹² *Principios y directrices básicos sobre el derecho de las víctimas de violaciones manifiestas de las normas internacionales de derechos humanos y de violaciones graves del derecho internacional humanitario a interponer recursos y obtener reparaciones* 60/147, Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2005eko abenduaren 16an. <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RemedyAndReparation.aspx>

¹³ *Informe del Relator Especial sobre la promoción de la verdad, la justicia, la reparación y las garantías de no repetición* A/HRC/21/46, Giza eskubideen kontseilua, Greiff, P., 2012ko abuztuaren 9an. http://www.ohchr.org/Documents/HRBodies/HRCouncil/RegularSession/Session21/A-HRC-21-46_sp.pdf

berreraiki¹⁴ behar dira. Plano indibidualean berriz, biktima eta biktimarioen arteko hurbilketa izango litzateke helburua. Dena dela, ezin da biktimen betebeharrak bezala ulertu adiskidetzeari, errespetatu behar da biktima bakoitzaren autonomia indibiduala jasandako min horren kudeaketari dagokionean.

Horretarako neurriak adiskidetzeko neurriak dira, errelatuak elkar partekatuz, elkarren mina ulertzera eta aitortzera zuzenduak, harreman baketsuak eraikiz.

Bestetik ezinbestekoa da **demokratizazioan sakontzea, giza eskubideekiko errespetuzkoagoa** den estatu bat eraikiz, estatuko balore eta instituzioetan duen konfiantza areagotuz, eta gizarte inklusiboago baterako oinarriak ezarriz.

Bestetik justizia trantsizionalarekin lotura dauka **memoriak**. Dena dela, memoria ez da kontsideratzen lau pilare horietako bat, independentea da, esfera kultural batean egin beharrekoa. Izan ere, Justizia trantsizionaleko gainontzeko neurriengandik ezberdintzen duena da, hau esku pribatuengandik sortzea zerbait ona dela. Estatuak ez du prozesuaren kontrola izan behar, baina bai ordea hauek bultzatu eta gidatu, benetan demokrazia eta giza eskubideen errespeturako aberasgarriak izan daitezkeen iniziatibak¹⁵.

Amaitzeko esan beharra dago, zuzenbide trantsizionala **ez dela zerbait zurruna**. Hau da, errealitate nazional bakoitzean egoeraren eta beharren arabera neurriak ezarri behar dira. Beraz, behar eta egoerak herritik herrira ezberdinak direnez esperientziak ezin dira moldatu gabe beste leku batean txertatu. Hala eta guztiz ere, beste lurralde batzuetan egindakoetatik asko ikasi daiteke eta eredu hartu. Dena dela, esan bezala, eginkizun egokitzailerik horretan malgutasuna, sormena eta ñabartzeko gaitasuna ezinbestekoak dira.

Azkenik esan beharra dago neurri hauek **edozein unetan** har daitezkeela, aurrera eramateko borondatea eta beharra dagoen heinean.

¹⁴ Gizarte harremanak berreraikitzeak ez du esan nahi denak lagunak izan beharko dugunik. Honen oinarrian dagoena errespetuzko harremanak dira, elkar pertsona duin eta elkar giza eskubide guztien jabe bezala aitortzea, bakoitzak duen ideologia alde batera utziz. Azken batean, herritarrek bestearengan herritar gisa konfiantza izatea lortu beharko litzateke eta ez elkar arerio moduan ikustea.

¹⁵ Ezin da gutxietsi tresna honen balioa. Gertatu denaz jabetzeko eta presente izateko tresna bikaina da, izan ere, jende askok jotzen du memoria osatzen duten elementuetara jakin minez. Jaso daiteke: dokumentaletan, liburuetan, museoetan, hitzaldiak, tailerren bidez etab. Esan daiteke orokorrean memoriaren inguruko iniziatibak giza eskubideak bermatu eta bultzatzeko edozein estrategiaren barruan egon beharko liratekeela ondorioz.

3. JUSTIZIA TRANTSIZIONALAREN BEHARRA EUSKAL HERRIAN

Euskal Gatazkaz hitz egingo dugu jarraian. Gatazka terminoaren erabileran ez dago adostasunik, estatuko indar eta korrante politiko nagusiek adibidez ukatu egiten dute terminoa, beste plano linguistiko batzuetan mugitzen direlarik. Dena dela, berez gatazka terminoa neutrala da, eta beraz, egokitzat jo dut gertaturikoa azaltzeko. Horrela ulertzen du hain zuzen ere “*Gatazka eta Akzio Humanitarioaren Azterlanen Institutua*”-k, Eusko Jaurlaritzak eskatutako Bake eta Bizikidetzaren Planaren bitarteko ebaluazioan adierazten duenez¹⁶.

Gatazkaz ari garenean, ez gara ari ikuspegi juridiko formal batetik aitortutako egoera batez. Argi utzi beharra dago gure kasuan ez gaudela delituen alderdi juridiko soilaren aurrean, ezta ere gatazka armatu baten aurrean, nazioarteko zuzenbide humanitarioan tipifikatzen dena Ginebrako hitzarmen eta bere protokoloetan¹⁷. Gizarteetan gatazkek gertatzen dira, modu soziologiko edo politiko batean ulertuta eta horrela ulertuta erabiliko dut lanean zehar.

A. “GATAZKA”

Euskal gatazka, historian zehar luzatu den gatazka etnonazional¹⁸ bat izan da, euskal lurraldeen independentzia edo subiranotasunaren defentsari lotua egon dena. Testuinguru honetan, egungo ikuspegitik ezberdindu beharra dago gatazka politiko bat zein indarkeriazko gatazka bat, gatazka beraren bi plano moduan ulertu daitezkeenak baita ere, dena dela, ezinbestean ezberdindu behar direnak. Gatazkaren aurrekariak ulertzea garrantzitsua da gatazka bi plano hauetatik aztertu ahal izateko, beraz, 1. eranskinean jaso dut honen inguruko informazioa.

¹⁶ “*Gatazka, zenbaitek ulertzen baitute horrekin euskal arazoa baldintza berdinetan gerran ari diren bi etsaien mailan jarriko litzatekeela. Hitz hau, beste edozein testuingurutan, modu neutralean erabiltzen da eduki zabalekin, batzuk positiboak –gatazka gizarte-aldaketa positiboaren eragile gisa–, beste batzuk potentzialki negatiboak –modu demokratiko eta baketsuan ebatzen edo aldatzen ez bada. Kasu honetan, gatazka hitza estigma bilakatu da eta erabiltzen duena jarrera abertzaleengandik eta “gatazkaren teoria” deritzonarengandik hurbil dagoela ulertzen da*”. Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Planaren bitarteko ebaluazioa. Azken txostena, Eusko Jaurlaritza, Toscano, R.; Morales, C.; Nuñez, Jesús A.; Rey eta Rey, F. 2015eko ekainean, 11 orr. http://www.euskadi.eus/contenidos/plan_programa_proyecto/xleg_plangub_01/eu_plang_01/adjuntos/EVA_LUACION%20PLAN%20DE%20PAZ%20EUSK.pdf

¹⁷ Ginebrako hitzarmenak (I,I,III) eta protokoloak (I, II) 1949ko abuztuaren 12koak.

¹⁸ MÍNGUEZ-ALCAIDE, X.; ALZATE SÁEZ DE HEREDIA, R. eta SÁNCHEZ DE MIGUEL M. (2014); “La Paz en el País Vasco. Una interpretación desde los significados sociales” *Revista de Paz y Conflictos*, 7 zk., 2014, 54 orr. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/4728249.pdf>

Gatazka politikoa:

Gatazka politikoak interes, behar edo balore kontrajarri eta bateraezinen ondoriozko eztabaida edo "kontestazio" egoerak eta prozesuak dira. Eztabaida egoerak egoteko, estatuaren antolaketa politiko demokratiko bat ezinbestekoa da, izan ere diktaduretan ez baitago eztabaida politikorik. Sistema demokratiko batean normalean sistemarekiko indar politikoen gutxieneko kontsentsua sortzen da eta konstituzio normaltasunaren barruan garatzen da euren arteko lehia politikoa; aldiz, gatazka politikoa dagoenean, konstituzio-sistema bera jartzen da kolokan.

Beraz, esan daiteke euskal gatazka etknazonala, gatazka politiko moduan Errestaurazio garaian sortzen dela EAJ alderdiarekin, orduan deklaritzen baita sufragio unibertsala (gizonentzat) eta orduan sortzen direlako euskal nazioaren inguruko eztabaida politikoak. Nazionalismoak, oro har, parekatu egiten ditu nazioa (herria) eta estatua; edo, bestela esanda, ezarri du nazio guztiei dagokiela estatu bat. Horrela, euskal nazioaren eta ondorioz burujabetzaren inguruko proposamenak espainiar konstituzio-sistema kolokan jartzen duten aldetik gatazka politiko bat sortuko da.

Indar nazionalista eta abertzaleek euskal politikagintzan historikoki indar elektoral eta sozial handia erakutsi dute, instituzio askotan egon direlarik urte askotan zehar. Gaur egun ere, azken urteetako hauteskunde datuei begiratu esan daiteke, hegoaldeko euskal lurraldeetan euskal nazio izaera aitortzen duten alderdien aldeko apustua handia dela¹⁹.

Bestetik, burututako galdeketetatik ondorioztatu daiteke oraingo marko juridikoa gainditzeko nahia handia dela, gehiengo garbi bat erabakitzeko eskubidearen alde

¹⁹ Egun EAEko probintzia mailako instituzioetako agintari EAJ indar nazionalistako ordezkariak daude, dena dela, botoetan, Espainiako azken hauteskundeetan Podemos alderdia izan zen garaile. Podemos Espainia-mailako alderdi bat bada ere, estatuko nazio ezberdinen aitortza eta autodeterminazio eskubidea defendatzen ditu. Ikusteko dago indar politiko honek Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan maila horri eusten dion. Nafarroan, egun, lehen indarra UPN bada ere (PPren aliatu dena), gainontzeko alderdi guztiek (Geroa Bai, Podemos, EH-Bildu, eta Izquierda-Ezkerra) bat egin dute UPN nafar instituzioetatik kanpo uzteko.

dagoelarik²⁰. Bestetik, erreferendum baten aurrean independentzia edo federalismoa nahiko luketenak ere kopuru esanguratsua osatzen dute²¹.

Espainia konstituzioak banaezina den nazio bakartzat hartzen du aldiz. Horrez gain, konstituzioa aldatzeko Espainiako biztanleen gehiengoz egin beharko litzateke, espainiar guztiei dagokien erabakia den aldetik, printzipio demokratikoetan oinarrituz.

Aipagarria da, bai estatuak zein erabakitze eskubidearen aldekoek printzipio demokratikoak aldarrikatzen dituztela norbere posizioa justifikatzeko. Kontraesan honen aurrean, gatazka politikoan sakontzea erabaki dut bigarren eranskinean.

Hau guztia esanda, erabakitzen duen *demos* edo nazioa zein izan beharko lukeenaren inguruko gatazka (**lurraldetasunezko gatazka**) bat gehitzen zaio. Izan ere, egun autonomia erkidego eta estatu ezberdinetan barrena zabaltzen da gatazka politiko, leku batzuetan beste batzuetan baino nabarmenagoa delarik.

Indarkeria gatazka:

Gatazka politiko horren harira, indarkeria erabili izan da. ETA eta beste talde batzuk (CCAA, IK, Iraultza etab) Euskal Herriari eskubide politiko nazional batzuk dagozkiola ulertuta, indarkeria erabili zuten Espainia horiek aitortzera behartzeko.

²⁰ Ipar Hegoa Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz Ikerketa Taldeak egindako ikerketaren arabera etorkizun politikoaz erabakitzeko galdeketa bat egitearen aurrean, %66,8 dira horren aldekoak (Ipar Euskal Herrian %52). Azterketa kualitatiboaren bidez ondorioztatu dutenez, jendeak printzipio demokratiko gisa ulertzen du erabakitzeko eskubidea. *Euskal Estatu irudikatzen. Euskal Estatuaren aurreko iritzia eta jarrera Euskal Herrian. Azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa*, Parte Hartuz Ikerketa taldea (UPV/EHU) eta Ipar Hegoa Fundazioa, 2016 http://www.iparhegoa.org/images/argitalpenak/euskal_estatu_irudikatzen_web.pdf

²¹ Euskobarometroaren 2016ko emaitzen arabera: estatuaren lurraldea antolatzeke formari dagokionez, autonomiarekin jarraitzearen aldekoa % 32a besterik ez da, %34ak federalismoa nahiko lukeelarik, eta independentzia berriz %24ak, azken seihilekoan -6 puntuko atzerapena izan ondoren. Azkenik %6a zentralismoaren alde egongo litzateke. Eusko barometroaren datuak Euskal autonomia erkidegokoak dira soilik, egindako 600 galdeketetan oinarrituak. *Euskobarometroa- Euskal iritzi publikoari buruzko aldizkako azterketa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2016 57 orrialdea http://www.ehu.eus/documents/1457190/1525260/eb_2016_01_euskera

Ipar Hegoa Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz Ikerketa Taldeak egindako ikerketaren arabera erreferendum batean zer erantzungo luketen galdetuta: gehienak euskal edo nafar estatuaren alde leudeke: %40,7 azterketa honen arabera. Apur bat gutxiago dira kontra leudekenak: %35,3. Halaber, esanguratsua da lautik batek (%24) ez dakiela zer erantzun, edo ez duela erantzun nahi, edo abstenitu egingo litzatekeela. Honek ikuspegi zabalago bat eskaintzen digu, 7 probintzietan egina baita, probintzia bakoitzean proportzio bera inkestatur. *Euskal Estatu irudikatzen. Euskal Estatuaren aurreko iritzia eta jarrera Euskal Herrian. Azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa*, Parte Hartuz Ikerketa taldea (UPV/EHU) eta Ipar Hegoa Fundazioa, 2016 http://www.iparhegoa.org/images/argitalpenak/euskal_estatu_irudikatzen_web.pdf

Bestetik, giza eskubideen urraketak burutu dira baita ere, talde parapolizialek, eta baita ere hertsapen monopolio zilegiak baliaturik hainbat funtzionarioek. Espainiar politikagintzako sektore batzuk ukatu egiten badute ere²² Euskal Herriko aktore ezberdinek egindako ikerketek ez dute hori erakusten²³, nahiz eta kopuruaren inguruan adostasunik ez dagoen.

Aipaturiko ikerketetan jasotako zifra altuenak kontuan hartuz, ETAr 785 hildako egozten zaizkio, CCAA-ei berriz 31, DRIL-eri 1, eta Iparretarrak-i 2. Horrez gain, 15 kasu inguru egile ezagunik gabe daude. Zaurituei dagokienean, guztira 2600 lirateke.

Talde parapolizialek eragindako heriotzak berriz 76 lirateke eta zaurituak 426. Segurtasun indarrei berriz euskal memoriaren arabera 228 hildako egozten zaizkie. Dena dela, nabarmena da azken datu honen kasuan, kopuruaren inguruko adostasun falta. Izan ere, Argituz-ek 122 identifikatzen ditu, eta Eusko Jaurlaritzaren txostenak berriz 94. Zaurituak berriz 749 izango lirateke, kopuruan nahiko adostasun dagoelarik.

Aipaturiko datuetan ez dira kontuan hartzen segurtasun indarrek burututako torturaren bitimak. Kopuruei dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren txostenaren²⁴ arabera 5.500 lirateke eta Euskal Memoriaren Fundazioaren arabera²⁵, 10.000 inguru. Aipatu behar da baita ere ETak burututako estortsio ekonomikoa, zerga iraultzailea deitzen zion horren harira eragin zena. Honen kopurua finkatzea oso zaila da eta ez da daturik ezagutzen.

²² Basagoitik 2011an Kofi Annan-i gutun bat idatzi zion non jasotzen zen “*La realidad española es que ETA ha asesinado a 857 personas y los que defendemos la unidad de España, cero*”. ABC egunkarian argitaratua 2011ko urriaren 19an. <http://www.abc.es/20111019/espana/abci-carta-basagoiti-kofi-annan-201110191921.html>

²³ *Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketek buruzko oinarritzko txostena (1960-2013)*, Eusko Jaurlaritzak, Carmena, M.; Landa, Jon M.; Múgica, R. eta Uriarte, Juan M., 2013 http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/giza_eskubideen_urraketak.pdf

Gernikako seme-alabak. Euskal Herria 1960-2010, Euskal Memoriaren fundazioa, 2010. Bertan jasotzen diren datuak *Berria* egunkariaren 2010eko abenduaren 2ko aletik jaso ditut. <https://datu-basea19.wikispaces.com/file/view/BERRIA,+2010-12-02.pdf>

Mapa (incompleto) de conculcaciones del derecho a la vida y a la integridad física y psíquica en relación a la violencia de motivación política relacionadas con el caso vasco. Argituz. [http://www.vientosur.info/documentos/mapa_final%20\(1\).pdf](http://www.vientosur.info/documentos/mapa_final%20(1).pdf)

Kontuan hartu beharra dago, lehengo biak 1960tik hasten direla, eta Argituz taldearena berriz 1968an.

²⁴ *Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketek buruzko oinarritzko txostena (1960-2013)*, Eusko Jaurlaritzak, Carmena, M.; Landa, Jon M.; Múgica, R. eta Uriarte, Juan M., 2013 http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/giza_eskubideen_urraketak.pdf

²⁵ *Gernikako seme-alabak. Euskal Herria 1960-2010*, Euskal Memoriaren fundazioa, 2010. Bertan jasotzen diren datuak *Berria* egunkariaren 2010eko abenduaren 2ko aletik jaso ditut. <https://datu-basea19.wikispaces.com/file/view/BERRIA,+2010-12-02.pdf>

Bestetik, badaude beste gatazkaren ondorio batzuk, ezin direnak nazioarteko zuzenbidearen arabera giza eskubideen biktima kontsideratu baina kontuan izan behar direnak. Horiek dira dispartzioaren ondorioz *in itinere* istripuetan hildakoak, edo, beste kategoria desberdin bat, poliziarekin enfrontamenduetan hildakoak etab.

Beraz, indarkeriak ez du iturri bakarra izan eta estatua gainera inplikatu egon da. Izan ere, urrapenak burutu dituztenak segurtasun indarrak diren kasuan, hauek estatuarentzat lan egiten duten heinean erantzule politiko eta erantzule juridiko subsidiario bezala identifika dezakegu estatua.

Bestetik, GAL en kasuan estatuan kargu politiko garrantzitsuak zituen jendea inplikatu egon zen heinean, eta finantzazioaren zati handi bat Barne Ministeritzatik zetorrela frogatu zen heinean, erantzule politiko eta erantzule juridiko subsidiario moduan estatua identifika dezakegu baita ere, eta ondorioz baita ere gatazka honen parte izan den alderdi politiko moduan.

Bien arteko harremanak:

Gatazka politikoa esan bezala interes, behar edo balore kontrajarri batzuk era dezakete, dena dela, gatazka politikoak hein batean aberasgarriak dira, eta ez dute zuzenean bakearentzat arriskurik ekartzen. Aberasgarria dela kontsideratzen da, izan ere, gatazka harremanetan naturala den zenbait den heinean, hauek gaintitu eta eraldatu beharra dago eta horrela pluralitatearen kudeaketa ona egin. Alde honetatik, tresna pedagogiko oso onak izan daitezke. Gatazka bakoitzak behar du foro bat landua izan dadin, desadostasunerako adostasun eremu bat.

Gatazka politikoaren alboan ordea indarkeriazko gatazkek sortu izan dira, helburu politikoekin indarkeriaren erabilera justifikatzen delarik. Indarkeriazko gatazkek ordea, onartezinak dira giza eskubideen urraketak burutzen diren aldetik.

Bi hauen harremanaren inguruan, honako aipamenak egin behar dira. Badira gatazka politikoak indarkeriarik gabekoak, ondorioz bata ez dakar bestea ezinbestean. Adibidez Irlanda eta Korsikan gatazka armatua egon da, baina ez ordea Eskozian.

Logikoa den bezala, gatazka politikoa gaintutako balitz, gatazka politiko horren testuinguruan sortutako indarkeria amaitu egingo litzateke. Dena dela, kontuan hartu behar da ez dela ezinbestekoa gatazka politikoa amaitzea indarkeriazko gatazkari amaiera emateko. Esan dugun bezala, indarkeriazko gatazka kasu honetan, gatazka politikoaren testuinguruan sortzen den gatazka ezberdin bat da, baina ez da

lehenekoagoren ondorio zuzena, beste baldintza batzuk eman beharko dira sortu dadin. Beraz, berriro ere gatazka politiko soila izateko baldintzak berrezarri daitezke indarkeria desagerraraziz. Ondorioz ez da nahastu behar gatazka indarkeriarekin.

Beraz, zein baldintza eman behar dira indarkeriazko gatazkarekin amaitzeko?

B. GATAZKAREN EBAZPENAREN BEHARRA

Lehen hurbilketa bezala kontuan hartu beharra dago, gai hauetan adituak direnak defendatzen dutela, **indarkeriazko gatazkak ez direla ekidin edo aktoreak menderatu behar, ebatzi** egin behar direla baizik²⁶.

Indarkeriazko gatazka denean, indarkeria kontzienteki egiten da, eta hautu hori egiten dute pertsona horiek ezin dira guztiz kontrolatu, ondorioz menderatu ezta ere. Pertsona baten hiltzeko gaitasuna blokeatu dezakegu espetxearen bidez, baina irteten denean erabaki dezake berriro ere kontzienteki indarkeria erabiltzea. Jarraitu egin dezake, borroka politikoaren alboan militarra eramateko borondatea duen jende nahikoa eta babes sozial nahikoa dagoen bitartean. Beraz, alde batetik kontuan hartu beharra dago menderatze hori modu horretan lortzea soilik ezinezkoa dela²⁷.

Honek ez du esan nahi estatuak justizia eginez talde disidente bat ahuldu ezin duenik, hau desagertu egingo delarik. Dena dela, desagerrarazteraino ahultzeko, beste baldintza batzuk ere eman beharko dira: talde hauen babes sozial falta etab. Baita ere, horrela gertatu izan den kasuetan ikusi da horrelako taldeen aurka errepresioa erabili dela estatu demokratiko batean erabili beharko ez lirakekeen bideekin. Hori izan daiteke adibidez Brigadas Rojas eta Raf-en kasua.

Dena dela, gatazka konpontzen saiatu gabe menderatzeko helburua soilik badu estatuak, urte luzez bizirik egon daiteke gatazka politikoa konpondu arte. Beraz, indarkeria gainditzen saiatu beharra dago gatazka ebatziz, azken finean errotik konponduz. **Horretarako ezinbestekoa da indarkeria sortzen duten baldintza guztiak desagerraraztea.**

²⁶ "En el conflicto no hay que vencer, hay que resolver" ROA SUÁREZ H. "Entrevista a johan galtung. construyamos paz y democracia en américa latina: aportes a su debate y concreción", *Análisis Político*, vol. 25, 75 zk., 2012, <http://www.revistas.unal.edu.co/index.php/anpol/rt/printerFriendly/43510/44801>

²⁷ *The Basque Conflict and ETA The Difficulties of an Ending. Special Report 384*, United States Institute of Peace, Whitfield T, 2015 12 or. http://cic.nyu.edu/sites/default/files/whitfield_basque_conflict_eta_dec2015.pdf

Desagerrarazi beharreko baldintza hauek ez dira gatazka politikoari zentzu hertsian lotuak daudenak soilik, esan bezala, gatazka politikoak ez baitakar ondorio zuzen bezala gatazka politikorik. Honen harira, Johan Galtung-ek **indarkeria estrukturala eta kulturala** identifikatzen ditu²⁸.

Egiturazko indarkeria izango litzateke, egitura politiko, soziala eta ekonomikoak gizartean sortzen duen kaltea, pertsonen beren beharrak asetu ezin dituztelarik. Adibidez: pobrezia, alienazioa, errepresioa sortzen duten egituren kasua. Horrez gain, indarkeria kulturala ere identifikatzen du, indarkeria sortzen duten gizartearen baloreak osatuko luketena (indarkeria heroizitate, patriotismo edo ere patriarkalarekin lotzen duten baloreak).

Galtung-ek ulertzen du indarkeria kultural eta estrukturalak indarkeria zuzena sortzen dutela, indarkeriaren erabilera legitimatzen duen kultura sortuz eta estatu egituratik indarkeria piztuz. Beraz, bake hori eraikitzen duten balore eta egiturak sortu behar dira gizartean, eta indarkeria eragiten dutenak ezabatu.

Honen harira, ezin da indarkeria zuzena edo politikoa amaitzen denean jada bake egoeran gaudenik ulertu. Johan Galtung-ek²⁹ bakea ez du indarkeria zuzenik gabeko egoeratzat soilik ulertzen, hori bake negatiboa deitzen diona izango litzateke. Helburua aldiz bake positiboa da, eskakizun bat maila altuago bat, ulertuz bake iraunkor bezala, beraren barne hartuko duelarik adiskidetzeari, giza eskubide guztien errespetua eta gatazkaren ondorioak modu egoki batez gainditzea. Hau da eskatzen duen gizartea osatzen duten norbanakoen integrazio satisfactorio bat. Honek sortzen duen oinarria askoz ere sendoagoa da bake negatiboa baino, etorkizunera begira.

Horretarako ezinbestean indarkeriaz estrukturala zein kulturala gainditu beharra dago eta indarkeria zuzena amaitzea ez da nahikoa beste indarkeria mota hauek baldin badaude.

Horiek desagerrarazteko hiru fase aurreikusten ditu: berreraikitzea (elkarrizketa nazionalaren bidez eta prozesu parte hartzailearen bidez egin beharrekoa), berradiskidetzeari (egiaren baitan eta egondako sufrimendu gutiak sozialki errekonozituz) eta gatazkaren ebazpena (kontzientziak esnarazi eta teknika egokiak aukeratuz). Horrela lortzen da **gatazka eraldatzea** (Galtung), eta izaera ezberdineko interes hutsak izatera pasatzea, edo beste era batean esanda gatazka politiko desagerraraztea.

²⁸ CALDERÓN CONCHA, P. "Teoría de conflictos de Johan Galtung". *Revista paz y conflictos*, 2 zk., 2009, 66 orr. http://www.ugr.es/~revpaz/tesinas/rpc_n2_2009_dea3.pdf

²⁹ CALDERÓN CONCHA, P., *art.cit*, 65 orr.

Horrez gain, gatazkaren ebazpenean gatazkan zerikusia izan duten alderdi guztiek parte hartzea oso garrantzitsua da, guztiek batera benetako eraldaketa ahalbidetu dezaten, eta inor atzean gera ez dadin. Horrez gain, ondorioen tratamenduari dagokionean, ikuspegi anitz batetik egitea ezinbestekoa da, ondoren ikusiko dugun bezala.

Beraz, **bake prozesuak** abian jartzea da biderik egokiena, hau da, gatazka ebazteko eta ondorioak konpontzeko negoziazio edo komunikazio bat aurrera eramatea. Horrela gatazkari irtenbide negoziatu bat ematen zaio³⁰. Menderatzearen bidez aldiz irabazle eta garaileen eskema soilik onartzen da, zeinetan egia bakarrarentzat lekua dagoen, eta ondorioz mendeetako gatazka bat memoria bakarrean oinarrituz idatziko den.

Praktikak erakusten du, soilik 5 gatazka (54 kasu ikertuetatik) amaitu direla irabazle eta galtzaileen irakurketa batekin, garaipen militar baten eskutik etorri dena. Gainontzean, bestetik 300 akordio sinatu dira bake prozesuen bidez gatazkaren amaierak ekarri dituztenak³¹.

C. EUSKAL GATAZKAREN EBAZPENA ZEIN EGOERATAN DAGO?

ETAk 2011ko urriaren 20an indarkeria gehiago ez erabiltzeko erabakia hartu zuen. Erabaki hori ez zen inongo akordioen ondorioa izan. Amaiera horren xehetasunak duten garrantzia aintzat hartuta, eranskinean jaso dut hauen inguruko gogoeta.

Dena dela, argi dago ez dela gatazken ebazpenaren bidez etorri, halakoek ezinbesteko baldintza bat bete behar dutelako: alde guztien konpromisoa eta akordiorako borondatea. Nahiz eta egia den hainbat negoziazio saiakera egon zirela aurrez, azken urteetan estatuaren jarrera ez da izan ETArekin edo ezker abertzalearekin inongo adostasunik lortzearen aldekoa.

Aitzitik, justizia penal sistemaren **errepresioa mantentzea** izan da estatuaren jarrera eta horren lekuko da, **“irabazleen justizia”** aplikatzen dela.

Terrorismo delituei salbuespenezko legedia bat aplikatzen zaie zeinak hiru zutabe dituen, horietako bat **“etsaiaren zigor zuzenbidea”** dugu. Beste edozein delituren aldean, gehiago zigortzen dira terrorismo delituak (ZK 76, 36.2, 78, 90, 72.6 art.). Horrez gain, eskuhartze penala aurreratzen da eta horren lekuko dira: apologia, probokazio,

³⁰ Bake prozesua eraginkorra izateko ezinbestekoa da elkar alderdi bezala onartzea eta irtenbide bat lortzeko borondatea izatea.

³¹ ORÉ AGUILAR, G., E. HERBOLZHEIMER, K. “La justicia en los procesos de paz: del dilema a la oportunidad”. *Papeles*, 97 zk., 2007 23 orr. <http://www.rebellion.org/docs/81257.pdf>

konspirazio eta proposamen delituak (ZK 579.1.I art) goraipamen delitua (ZK 578. art), edo elkarlan delituak (ZK 576, 576 bis art) tipifikatzen direla besteak beste terrorismo delituaren harira. Bermeen erlatibizazioa edo ezabapena ematen da baita ere, besteak beste delitu hauen eskuduntza Entzutegi Nazionalari ematen zaiolarik, eta zenbait salbuespen egiten direlarik atxilotua izateko garaian, eta zer esanik ez inkomunikazio erregimenean.

Ondoren plano judizialean, zuzenbide penal hori azkenengo muturreraino eraman dute, interpretazio zabalegiak eginez. Jarduera materialik burutu gabe, ETA-rekiko nolabaiteko "konibentzia" erakutsi duen partidu politiko, gazte erakunde, elkarte etab batetako kide izateagatik ETAko kide bezala zigortua izatea modu ohikoan ematen da. Horrez gain, presoan arteko koordinazioan eta babesean laguntzeagatik, abokatu mediku etab erakunde terroristako kide moduan zigortuak izan dira baita ere. Beraz, odolezko delituak eta parte hartze politiko zein elkartasunetik eratorritakoak berdin neurtzen dira kasu askotan.

Horrez gain, Parot doktrina izanez ezaguna den doktrina juridikoa ezarri zuen Espainiako Auzitegi Gorenak 2006ko otsailaren 20an ebatzitako 197/2006 sententzian, 2013ko urriaren 21ean Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 5. eta 7. artikulua urratzen zituela esan zuelarik: askatasunerako eskubidea eta segurtasun juridikorako eskubidea. Honen ondorioz doktrina hau bertan behera uztea lortu bazen ere, egun beste doktrina bat sortu dute beste estatu batean betetako espetxe urteak Espainian ez kontabilizatua izatearen ingurukoa, Parot-en kasuan bezala hitzarmenaren kontra joango litzatekeelarik.

Bestetik aipagarria dira ezker abertzalearen alderdi politikoa legez kanpoko deklaratu izana³² eta Egin eta Egunkaria egunkarien itxierak.

Azkenik, presoek espetxe politika bereziak aplikatzen zaizkie, hau da: epaia-aurreko prebentziozko espetxealdia, isolamendu baldintza luzatuak, zigor onurarik eskatzeko aukerarik ez, zigorra osorik bete beharra, zuzenean arriskugarritasun handieneko graduan kokatzea, telefono dei, gutun eta bisita guztiak kontrolatuak izatea etab. Esan

³² Kritikatu izan da, lege honek, nahiz eta formalki orokorra izan eta teoria batean baldintzak betetzen dituen edozein alderdi legez-kanporatzeko balioko lukeen, *ad hoc* esker abertzalea legez kontrako deklaratzeko sortu zela eta elkartzeko eskubidearen eta ideologia eskubidearen kontrako eraso izan zela. *"No cabe duda de que uno de los problemas fundamentales que presenta la proscripción de actividades antidemocráticas del art. 9 LOPP, al menos en los términos en que el precepto se articula, es el de la proporcionalidad. ... Y lo es porque, aisladamente entendidas las conductas, ni se da la necesidad comparativa frente a otras medidas, ni puede negarse que se produce un sacrificio excesivo de los derechos fundamentales afectados"* IGLESIAS BÁREZ, Mercedes "La ley de partidos políticos y el test de convencionalidad europeo" *Teoría y Realidad Constitucional* 25 zk., 2010, 570 orr.

daiteke orohar banakako pronostikoak ez direla egiten. Horrez gain, gaixotasun larriak edo edadean oso aurreratuak dauden preso arrunten kasuan hirugarren gradua edo aske uzten badira ere, kasu honetan ez da horrelakorik egiten.

Azkenik ezin aipatu gabe utzi dispertsio politiken aplikazioa. Egun 435 preso daude espainiar eta frantziar estatuetakoko 76 espetxetan sakabanatuak³³. Horietako %14,06 1.000 km baino gehiagotara dago, % 26,81 990-800 km bitartean % 36,48 790-500 km bitartean. Datuei begiratuta ikusi daiteke, Euskal Herritik urrunen dauden kartzeletan kontzentratzen direla preso gehienak, eta kontzentrazio hori, murriztu egiten dela Euskal Herrirainoko distantzia murriztearekin batera.

Espainiar Konstituziotik egiten den interpretaziotik eta kartaren inguruan Estrasburgoko auzitegiak egindako interpretaziotik ondorioztatzen da presoak kondena etxetik gertu betetzeko eskubidea dutela, baina kasu honetan eskubide hau ez da errespetatzen. Honen inguruan, nahiz eta Estrasburgok ez duen epairik eman, europar parlamentutik hainbat iniziatiba etorri dira honen amaiera eskatzen.

Honek guztiak ezker abertzaleko militanteen ideologia eta elkartzeko askatasuna zapaltzea ekartzen du, izan ere, Auzitegiak erakunde armatuaren kide izatearen delitua egozteko erakunde horrekin duen lotura ezartzean, lotura ekintza politiko eta ideologikoan datza, delituen eta ekintza politiko askearen arteko muga ia desagerraraziz. Beraz, estatuaren orain arteko estrategia antiterroristaren kostua eskubideak eta askatasunak mugatzea eta erregimena hondatzea izan da.

Beraz, esango nuke **indarkeria estrukturalaren seinala dela orain artean aipaturikoa.**

Bestetik, esango nuke gure gizarteko sektore batzuetan **indarkeria kulturala** ere badela, edo izan dela orain dela gutxi arte. Hau ulertuta, “ezer ez da bakea baino garrantzitsuagoa” “gatazkak desmilitarizatu behar dira” “ ez dago giza eskubideen urraketarik justifikatzen duen ideia politikorik” barneratua ez izatea moduan._Bada oraindik ere, edo izan da, indarkeria nolabait justifikatzen duen jende andana, bai ezker abertzalearen inguruan, eta baita ere estatuaren aldetik, estatutako aparatuek burututako edo zeresana izandako giza eskubideen urrapenak ikertu eta zigortu ez

³³ *Etixerat Hilabetekaria*, Etixerat (Euskal preso eta iheslari politikoen senide eta lagunak, 2015eko ekaina http://www.etixerat.eus/descargas/informes/mensual/2015/2015_junio_eu.pdf

dituztelarik, ez demokrazia garaikoak eta ezta aurrekoak ere. Honen erakusgarri da PP alderdiak 2002. urtera arte frankoren estatu kolpea gaitzetsi ez izana³⁴

Hau gainditu gabe, ezinezkoa da bake egoera bat, izan ere, indarkeria estrukturala edo kulturala dagoen heinean, hauek zuzeneko indarkeria erakartzen dutelako, bake prozesurako ezinbestekoa da³⁵.

Horrez gain gatazkak utzitako **ondorioak ditugu oraindik konpondu gabe**. ETAk ez du oraindik armagabetzea ez disoluzioa burutu estatua ezer negoziatzeko prest ez dagoenez ondorio gehiago pairatu gabe eta egiaztagarria izateko moduan egiteko zailtasunak dituzten aldetik.

Beraz, ETAk nazioarteko adituen gainbegiratzearekin eman nahi izan ditu bere borondatea erakusten duten lehen pausuak. Dena dela, egiaztatzaile hauek ezin dute asko egin izan ere, egin dezaketen gauzak legez-kontrakoak dira (adb armak non dauden jakitea). Horren lekuko da egiaztatzaile internazional hauek AN-ren aurrean deklaratu behar izan zutela. 2014 abenduaren 21-ean, nazioarteko adituen batzordeak ETAk armak baliogabetzen eta zigilupean ezartzen jarraitzen zuela berresten zuen eta desarmatze osorako egiazko urratsak zirela baieztatzen zuten.

Disolbatu eta armagabetu gabeko talde armatu bat egoteaz gain, gatazkak ondorio nabarmenak utzi ditu gizartean. Giza eskubideen urraketen ondoriozko biktima ugari ditugu, eta 400 preso inguru. Biktima horiek eskubideak bermatzeko oraindik kontu asko daude argitu gabe, eta biktima eta gizarteko sektore batzuk ez dira estatuak emandako bertsio ofizialez edo burututako prozesu judizialez fido. Horien artean aipagarrienak: GAL-en ingurukoak, polizien gehiegikeria kasu argitu gabeak (Mikel Zabaltza, Pasaiko enboskada, Jon Anza), eta baita ere aipagarri da honen harira, EAEn eta Nafarroan 990 gazte hil zirela 1977tik aurrera piztu zen droga kontsumo masibo

³⁴ *El País* egunkarian argitaratua 2002ko azaroaren 21ean. http://elpais.com/diario/2002/11/21/espana/1037833222_850215.html

³⁵ *"Mientras persistan las expresiones más virulentas del conflicto – la actividad armada de ETA y la represión que contra su entorno ejerce el Estado- de poco valdrá que quienes apoyan una u otra llegen a acuerdos en abstracto en torno a ... (puntos de consenso): siempre acabarán justificando, o amparando, o no denunciando expresiones de violencia que resultarían contradictorias con lo acordado (atentados, secuestros, falta de garantías en la detención, torturas, dispersión de los presos...), con lo cual el consenso, aun en los temas más sencillos, se tornaría inexistente" "se trata de cuestiones que tienen que ver con las razones que las partes enfrentadas esgrimen para justificar su postura en el conflicto, pero en realidad hace tiempo que han dejado de ser una justificación real del mismo y, por lo tanto, están lejos de ser la clave para su solución"*. SAINZ DE ROZAS, R. "Violencia estructural y cultura de paz", *Papeles*, 61 zk., 1997, 66 orr. <http://www.memoriadigitalvasca.es/bitstream/10357/30322/1/108310.pdf>

baten eraginez, garai horretan Espainiako polizia (edo bere atal batzuk) narkotrafikoko hainbat kasutan inplikaturik egon zela³⁶.

Negozio hauen atzean jende askok ikusi izan du polizien plana zela horren aktibo zegoen euskal gazteriaren indarra gutxitzea. Izan ere, drogaren zabaltze masibo hori izan da arma kontrainsurgente bat ez bakarrik Euskal Herrian edo estatuan, munduko herri askotan. Dena dela, ez dago garbi hori izan zen edo sinpleki, guardia zibil eta nazionalak beraien jardueri buruz zegoen inpunitateaz baliatzen ziren trazarik gabe negozio zikinetan ibiltzeko.

Dena dela, susmagarria da, inplikatuetako asko terrorismoaren aurkako borrokan murgilduta zegoen jendea zirela³⁷. Honen inguruan euskal apaizek adierazpen batean egindako zuzeneko akusazio bat dugu: esanaz narkotrafikoa GAL-ek beren ekintzak finantziatzeko eta segurtasun indarrek trukean informazioa lortzeko erabili zutela.³⁸

Horrez gain, nahiz eta sektore batzuk torturak sistematikoki aplikatzen direla esan espainiar estatuak ez du honen inguruan ikerketarik egiten. Jarrera ofizialen arabera salaketa guztiak faltsuak dira eta sistematikoki egiten dira ETAk diseinatutako estrategia baten esparruan.

Bestetik, gizarte zatitu bat dugu, elkarrekiko ezinikusiz eta gorrotoz josia. Batzuk mesfidantza dute instituzio publikoekiko, justiziariekiko, estatuko segurtasun indarrekiko. Beste sektore batek ETArekiko eta ezker abertzalearekiko, eta baita ere hauen edozein proposamenekiko. Horrez gain, bakoitzak bere alderdikoak bakarrik sentitzen ditu biktimatzat. Esan beharra dago, gatazka honek giza eskubideen biktimak sortzeaz gain, gizartea kaltetu duela baita ere.

Aktoreen arteko elkarriketa

³⁶ Adibide bezala honako kasu hauek: UCIFA kasua, Intxaurrendoko kuarteleko ikerketei buruzko Navajas epailearen txostena (AN-ra iristean galdu zena), "operacion arca de Noe" etab. Horrez gain, familien salaketak egon ziren, poliziak droga eman izan zuela salatuz. ETAk narkotrafikoaren eta mafia polizialaren kontra ekintzak burutu zituen testuinguru honetan.

³⁷ GALekin gerra zikinean inplikaturik egon ziren guardia zibilak: Maximo Blanco Lopez komandantea eta honen laguntzailea Enrique Dorado Villalobos, Felipe Bayo Leal, Rafal Masa teniente koronela, Miguel Dominguez komisarioa, Ramon Pindado komandantea etab. Gara egunkarian argitaratua 2014ko abenduaren 19an. http://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/gara_2014-12-09-06-00/hemeroteca_articles/mosaico-de-hechos-en-una-agenda-negra-a-abordar-sin-topicos

³⁸ Gara egunkarian argitaratua 2014ko abenduaren 19an. http://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/gara_2014-12-09-06-00/hemeroteca_articles/mosaico-de-hechos-en-una-agenda-negra-a-abordar-sin-topicos

Beraz, esan dugu bake prozesua behar dugula baina oraindik ez gaude egoera horretan. Estatuaren ez dago guzti honen inguruan hitz egiteko prest, ondorioz **bi aktoreen arteko elkarrizketa urrutia dago**. Horrez gain badaude hainbat faktore elkarrizketa hori zailtzen dutenak:

Halaber, alderdi bakoitzak indarkeria bakarraren inguruan jartzen du fokoa, nahiz eta azken aldiaren ezker abertzalea hartutako erabaki batzuen inguruko nolabaiteko autokritika egiten hasi den³⁹, aurrerapauso garrantzitsua delarik.

Bestetik sektore batzuetatik gatazka politiko baten existentzia ukatzen da⁴⁰. Horrek ere errealitatea desbirtuaten du, indarkeria ezin daitekeelako ulertu gatazkarik gabe. Aurrez esan bezala, indarkeria ez da besterik gabe sortzen. Gauza bat da begirada aldebakarreko penala, hau da, helburu politikoek garrantzia penalik ez izatea. Badutela kasu honetan, salbuespenezko politiko hori ezartzen zaielako eta ondorioz ez delako soilik jorratzen bere osagai penala terrorismo kasuan, dena dela, kasu honetan egiten dena maila guztietan gatazka politiko hori ukatzea da. Hau da, terrorismo ekintzak inongo gatazkarekin lotuak ez daudela ulertzea⁴¹. Terrorismoa inongo konponente politikorik gabe ulertzea okerra izateaz gain bakea zailtzen duela esan daiteke.

Termino horrek horrez gain badakar berarekin nolabait aktorearen alderdi moduan kontsideratua izateko legitimotasun falta bat ondorioztatzea, honen inguruan egiten den estigmatizazioaren ondorioz. Hau da, badirudi bateraezina dela helburu politiko zilegi batzuekin nahiz eta bidea inondik inora legitimoa ez izan.

Estatuaren erantzukizuna mahai gainean jartzea ETArekin justifikazio moduan ulertzen da baita ere. Giza eskubideen urraketa bakoitza salbuespenik gabe bidegabekoa dela onartuz, gatazka politikoaz hitz egitea, edo estatuaren gehiegikeriaz hitz egitea ez litzateke arazoa izan beharko.

³⁹ Arnaldo Otegi espetxetik atera denetik emandako elkarrizketetan honen inguruan hainbat deklarazio egiten zituen, bai EITB-ko albistegietan <http://www.eitb.eus/es/noticias/politica/detalle/3887676/primera-entrevista-arnaldo-otegi-quedar-libertad-etb/>, eta bai La Sextako Salvados programan http://www.atresplayer.com/television/programas/salvados/temporada-11/capitulo-18-entrevista-arnaldo-otegi_2016041600183.html

⁴⁰ Esteban González Pons eurodiputatu populararen adierazpenak: " *Los asesinatos y muertes nunca tienen causa política. Intentar justificar, comprender o explicar a ETA es no entender qué es la democracia y es ofender a la dignidad de las víctimas del terrorismo. ETA es una banda de asesinos. Nada hay detrás de ETA que pueda explicar los asesinatos*". *El Mundo* egunkarian argitaratua 2014ko ekainaren 23an <http://www.elmundo.es/espana/2014/06/23/53a889fe268e3e7e308b4573.html>

⁴¹ *The Basque Conflict and ETA The Difficulties of an Ending. Special Report 384*, United States Institute of Peace, Whitfield T, 2015 12 or. http://cic.nyu.edu/sites/default/files/whitfield_basque_conflict_eta_dec2015.pdf

Gatazkaren asimetrikotasunean oinarrituz negoziazioa ukatzen da baita ere. Konpontzeko beharra biktima kopuruarekiko independentea izan behar duen zerbait dela deritzot. Hau da, datu horrek balioa izango du beste eztabaida edo erabaki batzuetan, dena dela, ez negoziazio hori ukatzeko.

Jarrerren urruntasun horren erakusgarri da gizarteko sektore bakoitza plano terminologiko batean mugitzen dela, bestearena ukatuz, eta horrela komunikazioa eta posturak hurbiltzea zailagoa da.

Beraz, oraindik ere gatazkaren parte izan diren alderdien arteko elkarrizketa eta bake positiboa urrun daude beraz gatazkaren ebazpenera begira ondorik hainbat egin behar ditugu. Zein tresna ditugu horretarako? Nola artikulatu beharko litzateke hau?

D. JUSTIZIA TRANTSIZIONALA GATAZKEN EBAZPENARERAKO TRESNA ERAGINKOR ETA EZINBESTEKO BEZALA

Lehenik eta behin azpimarratu beharra dago esan bezala justizia trantsizionalak **gatazkaren ondorioak era integral eta sakon batean aztertu eta konpontzeko aukerak** eskaintzen dituela, gizarte hobeago bat eraikitzeke oinarri sendo bat osatuz.

Hain zuzen ere, Justizia trantsizionalaren helburu nagusia biktimen beharrei behar bezala erantzutea da. Bide horretan, justizia trantsizionalak egiten digun ekarpen garrantzitsuenetako bat, nazioarte mailan errekonozitzen diren giza eskubideen errespetua ziurtatzen duela da.

Eskubide hauek erreparatu gabe ez dago aurrerantz pauso sendoak ematerik, izan ere, ez genuke bake egoera baterako oinarri sendorik eratuko. Egia mahai gainean jarri gabe, biktimak aitortu gabe, erreparatu gabe, argi dago ezin dela aurrera egin. Ezta ere nolabaiteko justizia ezarri gabe. Ezinbestekotzat jotzen dira pertsona guztien duintasuna eta gizarte konfidantza bat lortzeko eta ezin da inolaz ere imajinatu gutxieneko errekonozimendu eta gizarte konfiantza maila batzuk ez dituen sistemarik.

Giza eskubideak gatazka batengatik urratuak izan direnean egoera gaitzetzeko printzipio hauek ezinbestekoak dira praktikoki, baina horrez gain, legalki bete beharrekoak direla esan daiteke baita ere⁴². Honek dakar justizia trantsizionala

⁴² Nazioarteko organoek emandako ebazpenak berez arau ikuspegi batetik estatuentzat ez dute ondorio loteslerik, hau da, ezin dira inposatu. Dena dela, ezin da ukatu, organo hauek derrigorrez bete beharreko itunen interpretatzaileak diren aldetik, bertan jasotzen dena zuzenbidea dela. Beraz, aplikatu beharko lirateke, modu eraginkor batean gauzatu ahal izateko nazioarteko legea, izan ere, ezin da nazioarteko zuzenbide publikoa iturri bezala arbuia. Horrez gain, espainiaren kasuan nazioarteko zuzenbidea,

nazioarteko arauen menpe egongo dela, eta beste aldetik justizia trantsizionalaren beharra justifikatzen duen arrazoi sendoago bat, bere helburuak legalki galdatzen direla.

Aurreko helburuek jada gizartearekin bere lotura badute, baina horrez gain, justizia trantsizionalak **gizarteari begira badauzka beste helburu jakin batzuk: adiskidetzea eta demokratizazioa**, giza eskubideen errespetu osoari dagokionean. Justizia trantsizionalak, gizarteak beren artean, erakundeetan eta gobernatzen gaituzten arau eta balioetan konfiantza handiagoa izatea ekar dezake, azken batean demokrazia bera hobetzea eta sakontzea.

Honen harira **helburua bakea ere izan behar da eta justizia trantsizionala horretarako tresnak** eskaintzen dizkigu baita ere. Esan dugun bezala, behar dugun bakea bake positiboa da, eta justizia trantsizionalak transformazio hori ahalbidetzen du, baldintza egokiak sortuz (egiturazkoak, sozialak) indarkeria mota guztiak saihestu eta gatazkak konpontzeko bide egokiak jorratuz.

Bakea ekartzeko helburuak askotan konponbide flexibleak eskatzen ditu, negoziazio politikoak direlako azkenean, eta horrelako irtenbideak behar izaten dituzte batzuetan. Honek posible egiten du bake prozesuetan gertatutako gainditzeaz gain helburua bakea izatea.

Batzuk argudiatzen dute bakea eta nazioarteko zuzenbidearen exigentzia juridikoak ez direla bateragarriak, bata edo beste sakrifikatu behar dela, batez ere, justiziari dagokionean. Honen inguruan argi utzi beharra dago, alde batetik bakea eta justizia ez direla kontzeptu antagonikoak eta bestetik, nazioarteko zuzenbideak eskaintzen dituen estandar guztiak betetzen diren prozesuak justizia eta bakearen arteko oreka bermatzen dutela. Izan ere, amnistia orokorrak ez dira nazioarteko zuzenbidean onartzen eta giza urraketa larriak suposatzen dituzten delituak izaera preskribaezina dute ⁴³. Indultu partikularrak berriz giza eskubideen urraketa larriak ez diren heinean onartzen dira soilik.

konstituzionalizatua dago EK 10.2 artikulua bidez. Beraz, ez litzateke egokia izango nazioarteko organoek itun horien kontrolerako duten organoaren eskumena ukatzea eta beren ebazpenak zuzenean aplikatzeko oztopoak jartzea. Nazioarteko zuzenbideak muga bat ezartzen dio estatuaren subiranotasunari.

Espainiaren kasuan ordea exigentzia juridikoak direnik zalantzan jartzen da, hau da, ez da onartzen nazioarteko organoen erabaki horiek Espainia lortzen dutenik. Espainiar auzitegien ustez organo hauek ez dute izaera jurisdikzionalik ez betearazlerik eta beraz defendatzen dute horretarako transposizioa egin beharko litzatekeela. Honen adb-a dugu Auzitegi Gorenaren 2005eko otsailaren 11ko 141/2005 epaia⁴² non esaten den Giza Eskubideen Batzordeari buruz ez duela ahalmen jurisdikzionalik eta bere ebazpenek ez dutela Auzitegi Gorena lotzen. Dena dela, interpretazio honek doktrinaren kritika jaso du, izan ere, zalantzarik gabe estatuak obligazioak hartzen ari dira itunak sinatzean. ITURBE, A., *op.cit*, 50 orr.

⁴³ *Conjunto de Principios para la Protección y Promoción de los Derechos Humanos Mediante la Lucha contra la Impunidad*, Giza eskubideen kontseilua, Orentlicher, D., 2005, 27 eta 28 artikulua. <http://www.derechos.org/nizkor/impu/impuppos.html>

Nahiz eta inpunitatezko ereduak ez diren onargarriak, eman izan dira horrelako prozesuak Espainia, Colombia Chile eta Salvadorren adibidez.

Bestetik, Nurenberg, Ruanda edo Yugoslaviako kasuetan justizian soilik zentratu ziren. Kasu honetan, bi printzipioen inguruko orekarik ez egoteaz gain, alderdi baten ikuspegitik egiten da prozesu guztia, orain artean aipatu bezala egokia ez delarik.

Zentzu honetan kasurik eredugarriena Sudafrikarena dugu, non justiziaren eta bakearen exigentzien artean benetako oreka ezarri zen, erantzukizunak ahal ziren neurrian indibidualizatzen saiatu zirelarik. Barkamenak (zigorra gutxitzeari edo kentzeari erreferentzia eginez) salbuespenezkoak eta indibidualizatuak izan ziren, beti proportzionalitate printzipioan oinarritutako irizpideak erabiliz. Proportzionalitatea egindakoari, bere ardura mailari, eta justiziarri eginko ekarpenen arabera finkatu zen.

Sudafrikako eredia aitortza publikoetan oinarritu zen. Delitugileek beren kabuz aitortu behar zituzten delituak barkamena nahi bazuten. Delitu politikoak bakarrik barkatu ziren eta aitortzen ez zirenak zigortuak izan zitezkeen. Horrela aitortza bakoitzak barkamen eskaera bat sinbolizatzen zuen eta egia mahai gainean jartzeko balio zuen. 7700 eskaera inguru egon ziren eta 1200 kasutan onartu zen barkatzea. Esan daiteke Sudafrikako eredia benetan eraginkorra izan zela, gaurkoz giza eskubideen errespetuzko sistema demokratiko batek jarraitzen duelarik Mandelaren alderdiarekin indarrean, nahiz eta ezberdintasun sozial eta ekonomikoa bizirik jarraitu zuri eta beltzen artean eta baita zurien artean eta beltzen artean ere.

Bestetik, Justizia trantsizionalak aukera ematen du , **konponbidea eta ondoren justizia alderdi guztien adostasunez egiteko** eta Nahiz eta justizia trantsizionalaren izenean, kontsulta eta adostasun gabe gertatu daitezkeen trantsizioak (autoamnistia bidez, justizia neurriak inposatuz, edo alderdiak elkarri barkamenak emanaz) ez da egokia, ikuspegi partzialaren isla izango delarik prozesua. Egokiena da, gatazkan aktore izan diren alderdi guztiak konponbidean ere alderdi izatea, eta ez soilik aktore armatuen artean eztabaidatzea.

Horrez gain, horrelako prozesuetan **komunitateak aktiboki parte hartzea** oso garrantzitsua da, justizia trantsizionalak aukera hau eskaintzen duelarik. Horrela bermatuko litzateke gatazkan interesa duten guztien parte hartzea gatazkaren ebazketan, eta ondorioz legitimitate handia duen kontsentsu bat. Horretarako, hiritargoa ahalmenu egin behar da, eztabaida sozial irekiak egin beharko lirateke, galdeketak edo erreferendumak egin. Honek ekarriko luke baita ere nazioarteko organo eta adituen babesa jasotzeko aukera gehiago.

Bestetik egoera konkretura egokitutako neurriak hartzeko aukera ematen du, **errealitate lokalaren** arabekoak. Egoerak oso ezberdinak egon daitezke. Kasu batzuetan diktadura baten harira etorri da, beste batzuetan gerra zibil baten harira, beste kasu batzuetan terrorismo kasuekin du lotura etab. Kasu bakoitzak bere baldintzak ditu, adibidez kasu batzuetan besteetan baino errazagoa izango da biktima eta biktimarioen arteko ezberdinketa egitea. Bestetik ez da berdina ezta ere trantsizio hori biktimarioak derrigorrez onartu behar izan duen kasua, edo negoziatuta etorri dena edo biktimarioarengandik aldebakarki etorri dena.

Azkenik aipatu beharra dago, Justizia trantsizionalak suposa dezakeen ekarpen positiboa ezinbestekoa dela, sortzen diren era ezberdinetako beharrei aurre egiteko **tresna arruntak ez direlako nahikoak**. Gai honen inguruan ez dago adostasunik. Batzuk kontrako ideia defendatzen dute, hain zuzen ere, daukagun zigor sistemarekin nahikoa dela.

Gure zigor sistema tradizionala justizia ordainkarian oinarritzen da, biktimak eragindako kalteagatik ordaindu beharra daukala izanik atzean daukan filosofia. Hau gutxi iruditzen zaienek beste justizia teoria baten aplikazioa defendatzen dute, hain zuzen ere justizia errestitutiboarena. Kasu honetan atzean dagoen filosofia ordaintzeaz gain, biktimarioak gizarteari eta biktimari sortutako kaltea erreparatu behar diola izango litzateke, eta ondorioz, espetxea baino egokiagoak dira beste neurri batzuk justizia teoria honen aplikazioa defendatzen dutenen ustetan: adb gizarterako lanak.

Nire iritziz, beste hainbat autorerekin batera, justizia arrunta ez errestitutiboa bere baitan, ez dira nahikoak gatazka bat eta bere ondorioak gainditzeko, hauek parametro edo ikuspuntu konkretu batzuetara mugatzen direlako eta horietan jarduten dutelako soilik. Zehazki esan daiteke biktima eta delituaren autorearen harremanean jartzen dutela fokoa soilik. Epaitegietan egia zati bat soilik ezartzen da eta hori erabiltzen da ondoren gaizkileak identifikatzeko. Dena dela, ezin dira gatazkaren arrazoiak sakonki aztertu, beharrezkoa den gizartearen parte hartzerik ez dago etab. Bestetik, bide arruntetik erreparazioak ematea oso prozesu luzea eta korapilotsua izan daiteke.

Beraz, kasu hauetan gatazkari ez zaio konponbide integral bat ematen, eta ez dira bermatzen osoki nazioarteko zuzenbideren exigentziak biktimei eta gizarteari dagokionean. Horretarako beste trenea batzuk behar dira, salbuespenezkoak, biktima eta delituaren autorearen arteko harremana baino eremu zabalago bat hartzen dutenak. Justizia trantsizionalak aukera hori ematen digu hain zuzen ere, arreta krimenenetatik biktimen sufrimendura eta gizartearen premia zabalagoetara lekualdatzea delako. Horrez gain, hain zuzen ere horregatik sortzen da, giza eskubideen babesa auzitara

zentratzen zelako era murriztaileegi batean, eta kasu batzuetarako hori nahikoa ez delako.

Nahiz gainontzeko justizia motak beraien baitan nahikoa ez izan, justizia trantsizionalaren parte izan daitezke noski. Hau da, justizia trantsizionala deituko genioke sistema osoari, dena dela, beren funtzioa bete dezakete beste justizia motek helburu jakinak lortzeko. Izan ere, justizia trantsizionalak malgutasuna eskaintzen du helburuak erdiesteko egokitzat jotzen diren neurriak erabiltzeko. Adb: Judizialak ez diren ikerketatik ateratzea ondoren zein epaitu behar den. Etiopian egin zen.

Azken puntu bezala, aipatu beharra dago, justizia trantsizionalak gizartearen eraldaketa bat ahalbidetzen duen heinean (gizarte, baketsu eta kohesionatu bat non giza eskubideen urraketek ez duten lekurik), **funtzio prebentiboa** burutzen duela, berriro gertatuko ez denaren bermea ezarriz.

Beraz, justizia trantsizionala tresna erabilgarri bat izan daiteke, dena dela, erabili izan da urrapenak burutu dituzten pertsonak erantzukizunetik ihes egiteko. Horrek ez du esan nahi zuzenean txarra dela. Horretarako daude nazioarteko arauak eta horien arabera egin behar da. Azken batean giza eskubideen errespetu handiago batera jauzia izan daiteke, eta ondorioz horrek emaitza onak besterik ezin ditu ekarri, helburua benetan bakea eta justizia modu orekatuan bermatzea bada.

Praktika txarrak egon izan direnez, hasiera batean “amnistia internacional” edo “Human Rights Watch” -ek mesfidantzaz begiratzen zioten, dena dela, bi instituzioek egun horrelako neurriak aholkatzen dituzte, eta hori emaitza on hauen seinale da.

Horrez gain, Nazio Batuen Erakundeetatik eskubide hauek bermatzea gomendatzeaz gain, hauen bermea justizia trantsizionalaren testuinguruan kokatzen dute⁴⁴.

⁴⁴ “Destacando la importancia y la urgencia de llevar a cabo actividades en el plano nacional e internacional para restablecer la justicia y el estado de derecho en situaciones de conflicto y posteriores a los conflictos y, cuando proceda, en el contexto de procesos de transición, y haciendo hincapié en la importancia de contar con una serie completa de mecanismos políticos, judiciales y no judiciales para garantizar la accesibilidad y la rendición de cuentas y para hacer justicia, promover y lograr la reconciliación y restablecer la confianza en las instituciones del Estado, de conformidad con las normas internacionales de derechos humanos y el principio de no discriminación

Destacando también la importancia de un proceso global de consulta nacional, especialmente con los afectados por las violaciones de derechos humanos, para contribuir a una estrategia integral en materia de justicia de transición que tenga en cuenta las circunstancias concretas de cada situación y se ajuste a las normas internacionales de derechos humanos y justicia de transición 2005/70, Giza Eskubideen Batzordea, 2005eko apirilaren 20koa, ap.ohchr.org/documents/S/CHR/resolutions/E-CN_4-RES-2005-70.doc

Foro sozialak 2013an 12 gomendio eman zituzten bake prozesuetan aditu internazionalak direnak. Gomendio horiek besteak beste justizia trantsizionalaren aplikazioa aipatzen dute⁴⁵.

4. JUSTIZIA TRANTSIZIONALAREN APLIKAZIOA

Gure kasuan, ez gaude estatuaren berfundazio egoera batean, printzipio demokratiko jakin batzuk zituen erregimen batetik beste batzuek dituenera pasa nahi dugu terrorismoa amaitu delako eta beharrezkoa da sistemaren kalitate demokratikoa hobetzea, estatuaren estrategia eskubideak eta askatasunak mugatuz eta kaltetuz egin baita.

Badira hainbat pertsona, justizia era hau gure kasuan aplikagarri ez dela defendatzen dutenak, ez dagoelako gurea bezalako egoeretarako aurreikusia, hau da, ez gaudelako diktadura batean edo ez delako guda armatu bat zuzenbide humanitarioan definitzen den bezala⁴⁶. Dena dela, hau jada argitu dugu hasieratik, eta egungo justizia trantsizionalaren kontzeptua ez dago hertsiki baldintza horietara lotua. Baldintza horiek jatorrian emandako aplikazioarekin lotuta daude, dena dela, doktrina hasi da aspaldidanik justizia trantsizionalaren lanabes kontzeptualak demokrazia finkatuetako erreparazio prozesuetan erabiltzen.⁴⁷ Justizia trantsizionalaren normalizazioa ematen ari dela esan daiteke zentzu honetan eta ez dago trantsizio politikoekin do gerra egoerekin zentzu hertsian lotuta.

A. HARTU DIREN NEURRIAK

⁴⁵ Bake Prozesua Indartzeko Foro Sozialaren gomendioak
<http://www.bakeforosoziala.org/gomendioak/gomendioak/>

⁴⁶ Iñaki Subijanak Gipuzkoako Entzutegi Probintzialeko presidentearen adierazpena justizia trantsizionalaren aplikazioa ukatzeko: "no es de tránsito de un orden no democrático a otro democrático o de conflicto violento entre dos bandos enfrentados". *El País* egunkarian argitaratua 2013ko azaroaren 17an. http://ccaa.elpais.com/ccaa/2013/11/07/paisvasco/1383827977_332581.html

⁴⁷ "Hacia finales del siglo XX emerge la tercera fase o estado estable de la justicia transicional. Esta tercera fase se caracteriza por el fenómeno de la aceleración de la justicia transicional de fin de siècle, asociado con la globalización y tipificado por condiciones de marcada violencia e inestabilidad política. La justicia transicional se traslada desde la excepción de la norma, para convertirse en un paradigma del estado de derecho. En esta fase contemporánea, la jurisprudencia transicional normaliza un discurso ampliado de justicia humanitaria construyendo una organicidad del derecho asociado con conflictos omnipresentes, contribuyendo así al establecimiento de los fundamentos del emergente derecho sobre terrorismo". TEITEL, R. "Transitional Justice Genealogy". *Harvard Human Rights Journal*, Vol. 16, 2003. Itzulpena: <http://www.cdh.uchile.cl/media/publicaciones/pdf/18/59.pdf>

Jarraian aipatuko ditut jada martxan jarri diren trantsiziozko justiziaren barnean sailka ditzakegun neurriak (nahiz eta instituzioek horrela deitu ez dieten).

a. ESTATUAK

Egia eta erreparazioa

Orain artean aipatu bezala, bi trantsizio bizi izan ditugu Euskal Herrian, lehengoa Frankoren diktadura amaitu zenekoa, eta bigarren bat, aurreko trantsizioaren bidez gainditu ez ziren eta bizirik jarraitu zuen ETA antolakundearen borroka armatuaren amaierak ekarri duena. Euskal gatazka deitu diogunak beraz biak hartzen ditu bere barne.

Justizia trantsizionaleko neurririk izan ote den aztertzeko beraz, hasteko Espainiako trantsizioan indarrean jarri ziren neurriak azertu behar dira, aurreratu dugun bezala trantsizio kritikagarri baten parte izan zirenak. Horien artean aipagarri dugu **amnistia legea**⁴⁸ zeinak, asmo politikozko legez kontrako ekintzegtatik erantzukizuna eta ondorio penalak kendu zituen, baita ere ETako kideentzako. Nazioarteko zuzenbidearen estandarrak beraz ez ziren errespetatu justiziarri zegoekionean, eta honen lekuko da Giza eskubideen batzordeak 2008an Espainiari amnistia legea deusezteko eskaera egin ziola.

Horrez gain trantsizio amnesikoa izan zen, ez bait zen ezarri momentu horretan egia argitzeko, biktimak erreparatzeko eta memoria bat erabakitzeko neurririk hartu. Frankok gerra zibilean bere alde borrokatu zutenak erreparatu (omenaldiak, monumentuak, pentsioak, subsidioak) zituen ohore guztiekin, eta hilda suertatu zirenak bilatu, lurpetik atera⁴⁹, ohorezko tokietan hilobiratu⁵⁰, eta erregistro zibileko heriotza zein desagerpen inskripzioak egin zituen. Hori gutxi balitz, bere aldekoen lanpostuak gorde zitzaizkien.

Nazionaleko fusilatu zituen guztiak aldiz, kopuruz gehiago izanik, ez ziren biktimatzat aitortzen, eta lurpetik atera eta erreparazio gabe gelditu ziren. Bizirik geratu zirenak berriz, bizimodu gogorra izan zuten: espetxea, lanetik bota zituzten beste batzuk, beste hainbatek alde egin behar izan zuen estatutik, eta batzuk erregimenak erailak izan ziren. Beraz errepublikarren nazioarteko eskubideak bermatzea egiteko zegoen eta denbora

⁴⁸ Amnistia legea 46/1977, urriaren 15ekoa.

⁴⁹ Urte hauetan EAO-ean exhumazio, gorpuen lekualdaketa, inhumazio eta heriotza eta desagerpen inskripzio ugari daude. Adb: Orden de 22 de octubre de 1936, dictando normas para el traslado de cadáveres de los muertos en campaña (EAO-ean urriaren 28an)

⁵⁰ Orden 31 de octubre de 1938, sobre enterramientos en templos y criptas (EAO-ean azaroaren 3an)

luze batean bermatu gabe geratu ziren. Hori da adb Alicia Gil-ek⁵¹ eta Paloma Aguilarrek⁵² esaten dutena.

Salatzen da baita ere ez zela benetako etendura bat gertatu aurreko erregimenarekiko, izan ere, diktadura garaian giza eskubideen urrapenak burutu zituzten polizia, militar eta epaileek beren postuetan jarraitzen baitzuten. Horrez gain, ordena publikoaren salbuespenezko *ad hoc* epaitegiak izena aldatu besterik ez zuen egin batzuen ustetan, Entzutegi Nazionala dena.

Jada demokrazia finkatu eta handik hemezortzi urte ingurura hartu ziren lehen neurriak, ez ordea gerra zibileko eta frankismoko erreparatu eta justizia egin gabeko biktimei begira, baizik eta frankismo amaieran sortu eta demokrazia garaira luzatu ziren **terrorismo fenomenoaren biktimak** erreparatzeko.

Terrorismoaren indarkeriaren biktimentzat, uztailaren 18ko 1211/1997 Errege Dekretua eman zuten lehenik eta ondoren Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunerako Legea (1999) etorri zen. Lege honen bidez aitortuak eta erreparatuak izan ziren besteak beste: Meliton Manzanos eta Carrero Blanco frankista ezagunak.

Egoera berdin mantenduko da 2007ko abenduaren 26ko 52/2007 Legea (**Memoria Historikoaren Legea**) memoria historikoaren legea atera arte, non Gerra zibilaren eta frankismoaren ondorioei heltzen zitzairen lehen aldiz biktimen eskubideak jasoz. Lege horren edukiak kritika handiak izan ditu, baita nazioarteko erakundeen aldetik ere, biktimen talde horri egia, justizia eta erreparazioa bermatzeko ahula delakoan⁵³. Horrez gain, talde armatuetako kideei ez zaie eskubiderik aitortzen¹, erregimeneko torturatzaile garrantzitsuei ukatu ez zaien bezala⁵⁴.

⁵¹ GIL, A. *La justicia de la transición en España. De la amnistía a la memoria histórica*. Bartzelona: Atelier, 2009, 143 orr.

⁵² AGUILAR, P. "Jueces, represión y justicia transicional en España, Chile y Argentina". *Revista internacional de sociología*, Vol. 71, 2zk., 2013, 302orr. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4378527>

⁵³ Honen erakusgarri da bere 4.5 artikuluan ezarri zela ez dela estatuaren zein inongo administrazio publikoren ondare erantzukizuna aitortzeko titulua izango eta ez duela aukerarik emango maila ekonomokiko edo profesionaleko erreparazio edo erreklamazioetarako. Horrez gain, ez du barne hartzen ere ez frankistek eraildako biktimen hobi komunen irekitze, indusketa edo aztertzea. Ezta ere frankismo garaiko sententzien deuseztapena.

⁵⁴ Doktrinak kritikatu izan du hauek ere frankismoaren biktimak izan beharko liratekeela, talde armatuak diktaduraren kontra borrokatu baitzuten garai horretan. Beraz, onartezintzat jotzen dena da irizpide hau 2007ko ikuspuntutik ezarri izana, demokrazia garaian talde armatu batek behintzat bizirik jarraitu zuela kontuan hartuz. Beraz, aipagarri da euskal gatazkaren harira hildakoen familia asko ez daudela lege honen babespean.

Geroago indartu egin da legedia **Terrorismoaren Biktimei** Aitorpena eta Erreparazioa emateko Legearekin (2008)⁵⁵ eta ondoren, Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko Legearekin (2011)⁵⁶.

2011ko lege hau 2012an PP alderdiak erreformatu egin zuen 17/2012 legearen bidez, interpretazioa europar zuzenbidearen arabera egin beharra zegoela gehituz 3 bis.2 artikuluan. 1983ko 116 zenbakidun indarkeriazko delituen biktimei buruzko europar hitzarmenaren 8.2 artikuluan oinarrituta, 2011ko legeak aurreikusten zituen kalte ordainak⁵⁷ ukatu egin dizkio Barne Ministeritzak 45 biktimei (denak indar parapolizial edo estatuaren abusuen biktimak), hauek indarkeriazko delituak burutzen zituen antolakunderen batekin harremana zutela arrazoituta.⁵⁸ Izan ere zehazki 8.2 artikulua honek jasotzen du kasu horretan kalte ordainak ez emateko aukera dagoela. Horrez gain, pertsona hauek talde armatuekin lotzerakoan ez dira kondenazko epaietan oinarritu kasu askotan (txosten polizialean baizik) eta ezker abertzaleko alderdiren batekin lotura izatea nahikotzat jotzen da ETako kide zirela justifikatzeko.

Erabaki horren aurka, biktima horiek helegiteak jarri zituzten ministerioan bertan lehenik eta administrazioaren ezekoa jaso zutenean auzitegian. Entzutegi Nazionalak uztailaren 1 eta 24an eman zien erantzuna eta honek Barne Ministerioaren erabakia berretsi zuen, beraien irizpideekin bat eginez.⁵⁹ Dena dela, salbuespen bat egon da, Tomas Albarena, HB zinegotzi izana Donostian⁶⁰.

⁵⁵ Reconocimiento y Reparación a las Víctimas del Terrorismo, 4/2008 legea ekainaren 19koa.

⁵⁶ Reconocimiento y Protección Integral a las Víctimas del Terrorismo 29/2011 Legea, irailaren 22koa.

⁵⁷ Kontuan hartu beharra dago, Auzitegi Konstituzionalak lege hauen bidez emandako diru honen izaera teknikoki ez duela kalte ordain moduan ulertzen. Honen inguruan Auzitegi Konstituzionalak abenduaren 3ko 361/1993 epaian Asturias Gaztela-Mantxa eta Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiek planteatutako konstituzionaltasun kontu mentatu batzuen harira ebatzi zuen: legez kalte ordain izendatzen badira ere, aurrekontu publikoen kargurako prestazio hauek, teknikoki ezin direla hartu administrazio publikoaren edo justiziaren funtzionamendu ezohiko batek edo akats judizial batek eragindako kalteengatiko ordaintzat (CE 121 art). Beraz, legegileak graziaz ezarritako prestaziotzat jo behar dira, erabaki politiko baten arabera izango direnak.

⁵⁸ Gara egunkariak argitaratua 2014ko martxoaren 11an http://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/gara_2014-03-11-06-00/hemeroteca_articles/interior-estaria-prevaricando-para-no-indemnizar-a-victimas-del-gal-y-bve

⁵⁹ Entzutegi Nazionalaren sententziak: 192/2015 uztailaren 1ekoa, 162/2015 uztailaren 24koa... Joxean Lasa, Josu Muguruza eta Angel Etxaniz-en kasuak dira besteak beste.

⁶⁰ Kasu honetan Entzutegi Nazionaleko 5. Aretoak ebatzi du Tomas Albaren senideei Espainiako Gobernuak 90.424 euroa (legez dagozkionak) eman behar dizkiola, hura hil zutenean HB legezkoa zen aldetik (24 urte beranduago deklaratu zuten legez kanpoko) eta hori izanik kalte ordainak ukatzeko arrazoia, kontsideratu da ezin dela atzeraginkortasunez aplikatu sujetuaren interesen kontrakoa den heinean. *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian argitaratua 2016ko apirilaren 30ean. <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2016/04/30/politica/interior-debera-indemnizar-a-la-familia-de-tomas-alba>

Kasuaz jakin zuenean, ebazpen hauek atera baino lehen, Eusko Jaurlaritzak informe bat eskatu zion Kriminologiako euskal Institutuari (IVAC)⁶¹. Bertan ondorioztatu zen 116 zenbakidun indarkeriazko delituen biktimei buruzko europar hitzarmenaren 8.2 del artikulua interpretazio arbitrario bat egin zutela espainiar epaileek, errugabetasun presuntzioa eta beste hainbat berme juridiko urratuz⁶².

Biktimaren egiarako eskubidearen inguruan jada egoera zein den azaldu badugu ere, kontuan hartu beharra daude pare bat kontu. Baltasar Garzon epailea gerra zibileko eta diktadura garaiko gertakariak ikertzen hasi zenean epaile funtzioetatik desgaitu egin zutela oso datu esanguratsua da, eta aipatu beharra dago baita ere Servini epaile argentinarraren justizia unibertsalaren bidezko ikerketen aurrean estatuak oztopoak jarri izan dituela.

Justizia

Bestetik, justizia arloan, zigor zuzenbide gogorra aplikatzen ari dira bai ETA eta bai bere inguruaren aurka, dena dela, aldetaren bat etorri da baita ere justizia trantsizionalaren norabidean.

Auzitegi Nazionalean ospatutako 04/08 sumarioaren auzian (Segurako epaiketa moduan ezagutzen dena) akordioa lortu zuten Fiskaltza, defentsa eta herri akusazioen artean, eta horren ondorioz 35 auzipetuek ez zuten kartzelara joan behar izan⁶³. Akordioan onartu egin zituzten akusazio idatzietan haien aurka esandakoak. Ezker abertzalearentzat lan politikoa egin zutela aitortzen bazuten ere, funtsean akordio horrek kondena onartzean zetzan.

Gauza bera gertatu zen Entzutegi Nazionalaren 4/2014 sumarioko epaiketan, fiskalarekin adostuta, zigor eskariak zortzi urtetik bira murriztu zizkieten, eta ez zuten

⁶¹ *Dictamen sobre indemnizaciones a víctimas de terrorismo*. Instituto Vasco de Criminología (IVAC-KREI) - UPV/EHU, Muñagorri Laguía, I.; Pérez Machío eta Ana I., 2014ko urtarrilaren 13an. <http://www.parlamento.euskadi.net/irud/10/00/016462.pdf>

⁶² Zentzu honetan Kriminologia Institutuak esaten du hitzarmen europar horrek ez duela derrigortzen estatua indemnizaziorik ez ematera eta izatekotan, sententzia irmo bidez frogatua egon beharko dela pertsona horrek horrelakorik burutu duenik. Horrez gain esan zuen, 2011ko biktimeen legea aldatu zuen 2012ko erreformak sartu zuela direktibaren transposizioa eta hau ezin dela aplikatu atzeraeraginkortasunez 2012 aurretik biktima errekonozimendua zutenei.

⁶³ Auzitegi Nazionalen 04/08 sumarioko ezker abertzaleko beste 35 auzipetuak ez bezala, Hasier Arraiz EAEko Auzitegi Nagusian epaitu zuten hautetsia izateagatik. Kasu honetan ere akordioa egon da fiskaltza eta defentsaren artean, baina Entzutegi Nazionalean ez bezala AVT eta Dignidad y Justicia herri akusazioak aurka azaldu dira eta hasierako zigor eskaerei eutsi diete. Dena dela, epaitegiak akordioa ontzat eman du eta Arraiz ez da espetxera joango. *Argia* astekarian argitaratua, 2016ko maiatzaren 10ean. <http://www.argia.eus/albistea/hasier-arraiz-epaiaren-zain-fiskaltzaren-eta-defentsaren-akordioa-eta-gero>

espetxera joan behar izan. Akordioa Segurako kasuko antzekoa izan zen, kasu honetan EKIN erakundean egindako lan politikoa aitortzen zutelarik⁶⁴. Amaiera bera izan du maiatzaren 17an ospatzekoa zen EKIN-eko beste kide batzuen kontrako epaiketak⁶⁵.

Beraz, hau **justizia transakzionala** da zentzu hertsian, inputatuak espainiar estatuak bere portaeraren inguruan egiten duten kalifikazioa onartzen ari diren heinean eta ikuspegi horrekin bat egiten ez duten heinean. Izan ere, orain artean ezker abertzaleak defendatu du lan politikoa ETAre jarraibide gabe egin dela azken urte luzeetan eta beraz era horretako kondenak ez direla zilegiak, ideologia askatasunaren urraketa suposatzen dutelarik.

Dena dela, akordio transakzionalak justizia trantsizionalaren baitan ematen daitezke, hau da posible da trantsizio hori bideratzeko hainbat neurrien parte izatea, osotasunean justizia trantsizionalaz hitz egin daitekeelarik. Kontuan hartu behar da akordio hau azken finean ETAre borroka armatuaren amaierak ekarritako egoera berriaren ondorio izan dela, estatuak bere jarrera malgutu duelarik. Askotan justizia trantsizionalak transakzionalazko konponente handia izaten du.

Bestetik, aipagarri da baita ere **Nanclares bidea**, zeina estatuak (zehazki espetxeetako zuzendariak) eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean sortu zuten ETAko presoan bergizarteratzea lortzeko helburuarekin. Presoek proiektu honetan parte hartzeko hainbat baldintza bete behar dituzte: estatuko espetxe politika onartzea, Euskal Presoen Kolektibotik ateratzea, ETA eta indarkeriari uko egitea, biktimei barkamena eskatu eta hauek erreparatzeko konpromisua hartzea, eta azkenik terrorismoaren kontrako borrokan estatua laguntzeko prest egotea. Bide hau hartzen duten presoek ez zaie gainontzekoei aplikatzen zaien salbuesenezko legedia bere horretan aplikatzen.

Esan daiteke Nanclares bidea justizia errestitutiboko neurria dela, izan ere, programa honek bere atzean du biktimarioak egindako kaltea aitortu, damua adierazi eta biktima erreparatzearen filosofia.

⁶⁴ *Berria* egunkarian argitaratua 2016ko apirilaren 14an. http://www.berria.eus/albisteak/121698/42014_sumarioko_auzipetuak_ez_dituzte_espetxera_sartuko_fiskalarekin_akordioa_eginda.htm

⁶⁵ Gara egunkarian argitaratua 2016ko apirilaren 17an. <http://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20160517/acuerdo-de-conformidad-en-la-audiencia-nacional-para-los-nueve-vascos-juzgados>

b) AUTONOMIA ERKIDEGO MAILAN

Egia eta erreparazioa

Justizia Trantsizionala funtsean estatuaren eskumena da, izan ere, justizia pilare garrantzitsuenetako bat izanik, osoki estatuaren esku dago eta gainontzeko biktimen eta gizartearen eskubideen bermeak ere osoki ez bada ere, gehienbat estatu zentralaren esku daude. Dena dela, toki administrazioek edo inizatiba pribatuek ere badaukate beren tokia.

Justiziarri dagokionean, estatuaren jarreran eragina izan dezaketen gauzak egin daitezke. Egari dagokionean bestalde, hein handi batean estatuaren esku dago epaiketen bidez bilatzen eta ofizialtzen delako, dena dela, beste bide batzuetatik bilaketak egin daitezke eta horretan bai toki administrazioak zein inizatiba pribatuak badute beren eskumena.

Erreparazioei dagokionean, toki administrazioak posible dute, bai legegilearen erabaki politikoz graziazko indemnizazioak ematea zein legegilearen agindu gabe laguntza sozialak bailitzan ematea⁶⁶.

Adiskidetze eta demokratizazioan lagundu dezaketen neurriak hartu ditzakete baita ere inizatiba pribatu zein toki administrazioek, eta ondorioz, errepikatuko ez denaren berme horretan lagundu dezakete. Memoriaren lanketarako ere bidea zabalik dute.

Eskumen hauek baliaturik hainbat neurri bultzatu dira maila honetatik justizia trantsizionalaren norabidean. Euskal autonomia mailan ere erreparatzen lehengoak **terrorismo biktimak izan ziren**⁶⁷.

Dena dela, estatuan ez bezala hauek ez dira bakarrak izan erreparatuak izaten. 2011ko martxoaren 31ko osoko bilkuran (PSOEn legealdian), motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak eta bestelako sufrimendu bidegabeak jasan dituzten biktimei buruzko legez besteko 61/2011 proposamena onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Talde politiko guztiek eman zuten aldeko botoa, hots, EAJ-PNV, PSE-

⁶⁶ Gobernuak eskumena du gizartearen atalean laguntzak emateko, eta eskumen hori baliatuz erreparatu ditzake biktimak. Beraz, erreparazio ekonomikoak legegilearen parte hartzerik gabe eman daitezke baita ere, administrazioak dekretu bidez hain zuzen ere.

⁶⁷ Terrorismoaren biktimei zuzendutako abuztuaren 4ko 221/1988 Dekretuaren bidez araututako laguntza-programa baten onarpenarekin hasi zen biktimek dituzten eskubideen errekonozimenduaren arloko jarduna. Hainbat urtetan eztabaida biziak egin ondoren, azkenean 2008. urtean osatu zen arlo horren erregulazioa, hain zuzen ere Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legea onartu zenean. 2010eko abenduaren 15ean, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretua argitaratu zen 239. zenbakiko EHAA. Badago beste dekretu bat, 55/2010 terrorismoaren biktimen partaidetzarako kontseilua arautzen duena.

EE, PP, Aralar, EA eta EB alderdiek, Ezker Abertzalea legez kanpoko deklaratu zegoen une horretan. Erabakian, Eusko Legebiltzarrak, besteak beste, eskatzen zion Eusko Jaurlaritzari: Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketan eta sufrimendu bidegabeen biktimen errekonozimendua eta erreparazioa ahalbidetuko zituen neurriak har zitzala.

Neurri horien artean, dekretu bat sortzea erabaki zen, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, **motibazio politikoko indarkeria**-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa. Dekretua egin zen, ez baitzegoen lege bat sortzeko adinako kontsentsu. Horrez gain, demokrazia garaia hartuko zuen bigarren dekretu bat sortzeko asmoa ere bazegoen.

Hasiera batean biktimen justiziarako eskubidea aipatzen zen. Dena dela, justizia bakar bakarrik botere judizialari dagokionez, justiziarekiko eskubide jasotzen duen erreparazio prozesu oro, botere judizialaren eskumenetik kanpo, ministerio fiskalaren baimenez egin beharrekoa zen. Beraz, hau alde batera utzirik, egia eta ordaintzat ulertutako erreparaziora mugatu behar izan zuen dekretuak.

Dekretu honek batzorde bat eratzen du, biktimak identifikatu eta baloratuko dituena. Manuela Carmenak, dekretuaren sortzaileetako batek, inolako zalantzarik gabe dituen ezaugarri eta izaera kontuan hartuz, justizia trantsizionaleko mekanismo garbi bat dela adierazi izan du⁶⁸ hain zuzen ere, egia batzorde antzeko zerbait. Biktimen bilaketa egiteko erabaki zen bidea biktimak komunikabideen bidez deitzea izan zen, eskaerak egiteko epe bat emanaz, egoerak ez baitzuen beste aukerarik ematen.

PNV indarrera iritsi zenean, dekretua erreformatu zuen⁶⁹. Aldaketa batzuk sartu zizkion, horien artean zuzenbide internazionalako irizpideen arabera egin ahal izatea baloraketak. Dena dela, Auzitegi Konstituzionalak indargabetu egin zituen xedapen

⁶⁸ CARMENA M., "Giza eskubideen urraketan biktimei buruzko dekretuak: 107/2012 dekretua. Balantzea eta etorkizuna". LANDA Jon-Mirena (zuz. Zientifikoa); *Justizia Trantsizionala: proposamenak Euskal Herriarentzat*. Institut Universitaire Varenne. Collection Transition & Justice, 2014, 36 orr.

⁶⁹ 426/2013 dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko dekretua aldatzen duena.

batzuk (1,2,4,5 , 7 eta 9.9)⁷⁰ eta ondorioz aspektu tekniko batzuk aldatu behar izan ziren dekretua lehen zegoen bezala utziz⁷¹.

Balorazio Batzordearen balorazioko txostenaren arabera⁷², aurkeztutako 239 eskaeratik 187 izan ziren azkenik biktimatzat jo zirenak. Gainontzeko 52 eskaerak baztertuak izan ziren. Beraz, kasu guztien %78 biktimatzat jo izan ziren eta %22, aldiz, ezetsi. Eskaerak ezesteko arrazoiak formalak izan direla jasotzen da txostenean.

Nafarroko Autonomia Erkidegoan aldiz, Izquierda-Ezkerrak estatuko indarren eta eskuin muturreko indarkeriaren biktimen erreparaziorako lege proposamena egin zuen eta PSN, Bildu, Aralar-NaBai, I-E eta Geroa Bai-ren babesarekin aurrera atera zena (16/2015 legea, apirilaren 10ekoa), PP eta UPNk kontra bozkatu zutelarik. Lege honek du Nafarroan 1950etik egun arte eskuin muturreko taldeen eta polizia indarkeriaren biktimak aintzatetsi eta erreparatzea eta EAEren kasuan bezala honek ere aitortza eta ordainaren batzorde bat sortzen du, parlamentuak izendatutako 9 pertsonekin, giza eskubideen urraketak ikertzeko eskumena izango duena.

Legea, espainiar gobernuak auzitara eraman du konstituzio kontrako dela arrazoituta (behin behineko neurri bezala indargabetu geratu delarik), beren ustez besteak beste babes judizial efektiboaren eskubidea, errugabetasun presuntzioa eta legalitate printzipioa urratzen baititu. Izan ere, ulertzen dute konstituzioak giza eskubideen urraketak ikertzea epaile eta auzitegiarentzat erreserbatzen duela eta batzorde honekin justizia paralelo bat ezartzen dela, hiritarren errugabetasun printzipioa urratua suertatzen delarik.

Beraz, ikusi beharra dago Auzitegi Konstituzionalaren epaia zein izango den, dena dela, aurreko dekretuaren kasuan hartutako erabakia aintzat hartuta, erantzunak kongruentea

⁷⁰ Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 267/2015 epaia, apirilaren 24koa.

⁷¹ Epaian kontsideratu zen nolabaiteko parte hartze mediku bat ezinbestekoa izan behar zela Balorazio Batzordean, aurreko osakeraren arabera ez baitzeukan biktimen lesioak baloratzeko jakintza nahikorik eta horrela exigitzen baitu subentzioen lege orokorrak. Ondorioz, komisioren Lege Arloko Medikuntzaren Euskal Institutuaren hiru forensek hartzen dute parte egun.

Bestetik, balorazio irizpideen inguruan kontsideratu zen zehazgabeegia zela zuzenbide internazionalari egiten zitzaion erreferentziei zegokionean edo erabakiak komisioren esku uzten ziren kasuetan. Puntu hauetan parametro objetibagarriak falta ziren aldetik, trafiko istripu edo gaixotasun profesionalen kasuan erabiltzen diren kalte ordain irizpideak erabili beharra ezarri zen (ESS/66/2013 ordena, urtarrilaren 28koa).

Aldaketa hauek ekar zitzaizkieten ondorioak aurreikusiz, epaian adierazi zen ordura arte emandako indemnitazioak ez zirela itzuli behar.

⁷² *Giza Eskubideen Urraketak jasandako Biktimen Balorazio Batzordearen Txostena 1960-1978. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua*, Eusko Jaurlaritza, Hernando, M.; Ormazabal, S., Gil-Robles, A.; Pérez, José A.; Martín, C.; Ezenarro, A. eta Sánchez, M., 2016ko otsailaren 18an. <http://www.parlamento.euskadi.net/irud/10/00/035942.pdf>

izateko ez luke dekretua osotasunean indargabetu beharko. Dena dela, ikusi beharra dago ebazpena, izan ere dekretu honek aitortzea helburu duen 1978 geroztiko biktime hauek estatuko gobernuak ez ditu onartzen, beraz, polemika izan dezakeen epaia da.

Bestetik, aipagarri da baita ere Eusko Jaurlaritzak **1960tik 2013ra arteko giza eskubideen urrapenen txostena egitea eskatu zuela**, aurrez biktime kopuruak oinarritzeko erabili duguna. Hau ez da egia batzorde bat, baina artxiboak aztertzeko lana egin dute eta hori aportazio handia da, are gehiago txosten ofizial bat den heinean. Horrez gain, txosten honek berak gomendatzen du tortura salaketen fidagarritasunari buruzko azterketa bat egitea, beti ere irizpide psikologiko forentseetan oinarrituta eta Istanbulgo Protokoloaren arabera. Horrez gain, gorabehera judizialei buruzko txostena egitea ere gomendatzen du torturaren inguruan.

Honen aurrean, eusko Jaurlaritzak torturari buruzko azterlan bat jarri du abian, Paco Etxeberria eta beste aditu talde bati eman zaiolarik honen ardura. Hau ere justizia trantsizionaleko aurrerapusu bat izan daiteke, bere mugekin noski. 2016ko apirilaren 25an GARA egunkarian argitaratutako datuen arabera: 5.022 kasu egiaztatu dira 1960-2013 aldian⁷³. Euskal Memoriaren Fundazioak bere ekarpenak egin ditu txosten ofizialean, zeinak "Tortura en Euskal Herria – Oso latza izan da (2012)" egindako lanean 9.600 kasu posiblez hitz egiten duen. Ikerketa hori amaitzen denean, ezkutatuta eta ukatuta egon den eta horren ondorioz biktimen diskriminazioa eragin duen fenomeno hori argitzen lagunduko du.

Horrez gain, torturaren biktimen legea ere ateratzeko asmoa ere adierazi izan zuen Eusko Jaurlaritzak. Horrez gain, EAEko⁷⁴ eta Nafarroako⁷⁵ legebiltzarrean alderdiak ados jarri dira baita ere estatuari torturaren aurrean zorrotz jokatzeko eta ONU-ren adierazpenak betetzeko eskatzearen inguruan.

Aipagarri da baita ere Eusko Jaurlaritzak **Gertu programa** jarri du martxan biktimei babes pertsonalizatua emateko.

Badira aurrera eraman diren erreparaziozko beste neurri batzuk ere, horien artean **omenaldiak**. Memoriaren eguna sortu zen 2010ean eta egun honetako omenaldiak

⁷³ Gara egunkarian argitaratua, 2016ko apirilaren 25ean http://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2016-04-25/hemeroteca_articulos/la-persona-torturada-queda-libre-en-el-41-de-5-022-casos-ya-verificados

⁷⁴ EITB-ren orri digitalean argitaratua 2016ko azaroaren 2an. <http://www.eitb.eus/es/noticias/politica/detalle/3831646/el-parlamento-vasco-reclama-rigor-tortura/>

⁷⁵ Gara egunkarian argitaratua, 2016ko maiatzaren 5ean. <http://www.naiz.eus/eu/actualidad/noticia/20160505/el-parlamento-navarro-rechaza-rotundamente-la-practica-de-la-tortura-y-pide-el-fin-de-la-incomunicacion>

inklusiboagoak izaten saiatu da Eusko Jaurlaritzak, abusu poliziaren biktimak ere gogoan izanik azken hiru urteetan. Dena dela, erabaki honen aurrean PP eta UPyD-k ez dute parte hartu nahi izan eta beren akto propioa ospatzen dute Gasteizen, terrorismoaren biktimak soilik gogoratuz. Horrez gain, kolektibo bakoitzari ere omenaldi indibidualak egiten zaizkio.

Bakea eta adiskidetzea

Bakea eta adiskidetzearen inguruan, aipagarria da EAJ alderdiak gobernuan zegoela egindako **Bake eta Bizikidetzea Plana 2013-2016**⁷⁶, non "gutxieneko oinarri etiko eta demokratikoak" ezarri dituzten, eta, horren baitan, EAJk, PSE-EEk eta PPK parlamentuko bake ponentzian adostutako '**zoru etikoa**' erantsi duten⁷⁷, orain arte lortutako adostasun handiena dela argudiatuta.

Honen harira esan beharra dago ekarpen garrantzitsua dela, ezinbestekoa baita aldeek batera irizpide egiaztagarriak eta negoziatu ezin direnak (principled approach) erabakitzea, denak betetzera obligatzen direlarik⁷⁸. Honek oinarri komun bat eta egonkortasuna eskaintzen dio prozesuari.

Horrez gain, bake eta bizikidetze planaren **aholku batzordea** eratu da 157/2014 Dekretua, uztailaren 29koaren bidez. Aholku batzordearen zereginetako bat izango da Jaurlaritzaren eta gainontzeko instituzio eta erakundeen artean zubi lana egitea. Halaber, Bake Planaren jarraipena egingo du, eta bere iritzia emango du.

Ezin aipatu gabe utzi EAEko adiskidetze neurri garrantzitsuenetariko bat izan dena, **Glencree programa**. Glencree programan alde guztietako biktima ezberdinek parte hartu zuten, eta elkarren artean hainbat elkarrizketa izan eta besteen errealitateak ezagutu ostean, idatzi bat egin nahi izan zuten denek jasandako indarkeria bidegabea

⁷⁶ 2013-2016ko bake eta bizikidetzea plana. *Gizartea elkartzea helburu*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, 2013ko ekainaren 11an <http://www.ehu.es/documents/1687243/2126107/Bake+eta+bizikidetzea+Plana.pdf>

⁷⁷ Aurreko legealdian sortu zen "Zoru etikoa" Ezker Abertzalea legez kanpo zegoelarik eta 2013an berretsi zen agintaldi berrian. Ez zen ordea EH-Bilduren adostasunik lortu, ez zoru etikoarekiko ezta ere ondorioz planarekiko, izan ere bertan espetxe politikaren inguruko gaiak jasotzen ez direla, eta gatazkaren existentzia ukatzen dela ulertzen dutela adierazi zuten. Horrez gain, PP eta PSOE alderdiak ponentzian parte ez hartzea erabaki zuten, eta EH-Bilduk egoera horretan ponentziaren alde egin bazuen ere, inizatiba geldirik geratu zen. Beranduago ponentzia berri bat egiteko saiakera egon zen denen adostasunera bideratua PP-ren inizatibaz, dena dela, azkenean berriro ere bertan behera geratu zen alderdiak berak atzera bota zuelarik. Esan daiteke hemen arazoa "kondena"-terminoa izan dela. *El Pais* egunkarian argitaratua 2015/10/08 http://politica.elpais.com/politica/2015/10/07/actualidad/1444218731_850775.html

⁷⁸ GARDNER, J. Engagement of armed groups in peace processes, Wilton Park Conference WPS05/34, Conciliation Resources, 2006ko maiatza.

dela eta denek eskubide berak merezi dituztela aldarrikatuz. Horrez gain, beste egitasmo batzuk egon dira biktima eta biktimarioa elkartzekoa, adibidez Nanclares bidea hartu zuten presoek kasuan.

Bestetik, EH-Bilduren legealdian Gipuzkoako Aldundian, “*Gipuzkoako giza eskubideak, oroimenaren berreskurapena eta bizikidetzaren zabaltzeko plana*” sortu zen, berradiskidetzeak benetako hedapena izateko helburuarekin. Udalek horrelako programak sortzeko beharrezko laguntza tekniko eta aholkularitzazko ematen datza planak.

Esan beharra dago, honek bere fruituak eman dituela. **Herri askotan sortu dira bake bizikidetzaren taldeak**, gai hau lantzen duten jende ezberdina biltzen delarik. Horrez gain, talde hauek bake eta bizikidetzaren jardunaldiak antolatzen dituzte herritarrek gai hauetara hurbiltzeko helburuarekin. Badaude hiru fundazio Baketik, Bakeola eta Lokarri, herriekin lankidetzan dihardutenak programa hauek bultzatzeko.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren bake eta bizikidetzaren txostenaren harira, gatazkaren irakaspenak **hezkuntzaren eremura** eraman nahi izan dira, ikasgeletan biktimen presentziarekin. Eskola gutxitan eraman da aurrera.

Memoria

Bestetik, aipatu beharra dago memoriaren inguruan egin den lanketa. Aipagarria da, eusko Jaurlaritzaren bake eta bizikidetzaren planaren harira **Gogora** memoriaren institutua sortu dela. Txosten ezberdinak atera ditu izandako inizatibek inguruan eta atari bat ere sortu du, testigantzak jasotzen dituen besteak beste.

Horrez gain, Aranzadi Zientzia Elkarteak Gogora Instituturen esku utzi du frankismoan errepresaliatutakoek inguruan azken 13 urteetan bildu duen informazio guztia⁷⁹. Aranzadi Zientzia Elkarteak 1.618 familiari eman die arreta eta orain, EAEko biztanleek Lakuara jo dezakete gerran desagertutako senideei buruzko informazioa eskatzeko. Administrazioak senideei entregatuko die txosten hori, kopia bat fitxategian gordez.

Bestalde, “*Gipuzkoako giza eskubideak, oroimenaren berreskurapena eta bizikidetzaren zabaltzeko plana*”-ren barruan **Gipuzkoako udalerrietan memoriako egitasmoak bultzatu dira**. Programa bat egin zen eta bide honetatik udalek beharrezko zuten

⁷⁹ Gara egunkarian argitaratua 2016ko maiatzaren 2an <http://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20160502/aranzadi-gogoraren-esku-utziko-du-frankismoan-errepresaliatutakoek-inguruko-fitxategia>

laguntza tekniko eta aholkularitzazkoa jaso zuten horrelako proiektu bat aurrera eramateko. Esan beharra dago honek bere fruituak eman dituela. Horren lekuko da Errenteriko kasua, non txosten bat egitea lortu duten, 1960tik 2012 arte memoria bateratu bat eraikiz⁸⁰. Alderdi guztiek lanean jardun zuten eta denak onartu zuten emaitza.

Justizia

Bestetik, justizia osoki estatuaren eskumena bada ere Eusko Jaurlaritzak prest agertu dela Euskal Herritar presoek egoera hobetzeko estatuarekin negoziatzen saiatzeko. Honen harira aipagarri da **Nanclares bidean** estatuarekin elkarlanean aritu zela. Bestetik, aipagarri da baita ere, **Hitzeman programa**, presoek legezko gizarteratze-prozesuei laguntzeko «Legezko bidea». Bake eta bizikidetzaren planaren harira sortu zen programa hau eta Eusko Jaurlaritzaren arabera programarekin bat egiten duten presoek aholkularitza jasoko dute, baita babes pertsonala eta sozio-asistentziala ere, behar bezala gizartera daitezten.

B. HARTU DIREN NEURRIEN MUGAK

Agerian geratu denez, estatuaren jardura biktimen politika partzial batzuetara mugatu da. Ez da borondaterik egon gizarteraren partaidetzaz justizia trantsizionaleko prozesu oso bat abian jartzeko, adiskidetzaren bultzatzeko eta demokrazia eta bakean sakontzeko. Hasieran aipatu bezala, badugu oraindik ere disolbatu eta armagabetu ez den talde armatu bat, horretarako borondatea izanik egin ez duena ondorioen beldur.

Horrez gain, ETaren biktimen politikari dagokionean, nazioarteko arauetan oinarritutako eta Autonomia Erkidegoko legerian garatutako estatuko lege-esparru oso bat dago beren eskubideak babestu eta defendatzeko. Gerra zibilean eta frankismo garaiko biktimak eta segurtasun indarrek (edo horien adostasunarekin), eskuin muturreko taldeek edo talde parapolizialek egindako indarkeriaren biktimen kasuan aldiz, gehienak ez dira behar bezala aitortu ez erreparatu. Horiek ere hainbat giza eskubideren urraketa larrien biktimak dira, hala nola bizitzeko eskubidearen eta osotasun fisiko eta psikorako eskubidearen urraketen biktimak, eta azken horretan daude kokatuta tortura kasuak.

⁸⁰ *Hacia una memoria compartida. Informe sobre violaciones de derechos humanos y hechos violentos acaecidos en Errenteria de 1956 a 2012*, Argituz, 2015eko otsaila. <http://herribizia.errenteria.eus/wp-content/uploads/sites/2/2015/11/HACIA-UNA-MEMORIA-COMPARTIDA.pdf>

Hau Pablo Greiff Nazio Batuen errelojaren txostenean horrela jaso zen⁸¹. Beraz, biktimen politikak, asimetrikoak, diskriminatzaileak eta, eduki batzuen kasuetan, neurritz kanpokoak izan dira.

Dena dela, honek irakurketa zabalago bat dauka atzean, hain zuen ere, bakoitzak bere biktima sentitzen dituenak soilik babesteko joera. Estatuan agintean daudenen jarrera ikusirik, ondorioztatu daiteke beraien biktimatzat sentitzen dituztela terrorismoaren biktimak, hauek izan direlarik eskubide osoko biktima bakarrak. Ez ordea biktima suertatu diren talde armatuetako kideak edo hauen ideologia bereko pertsonak, nahiz eta frankismo garaian izan. Ezta ere dirudenez gerra zibilean errepublikaren alde borroka egin zutenak. Hori ondorioztatu daiteke, jasan izan duten diskriminaziotik eta Mariano Rajoy-ren gobernu indarrean zela Memoria historikoaren legea de facto derogatua geratu izanetik, 2013-2014 urtean bere aplikaziorako aurrekontuetatik dirurik bideratu ez zelarik.

Beraz, azken finean, orain artean egin dena giza-eskubideen diskurtsoa monopolizatu eta zanpatzea izan dela, “beste” biktimen errealitatea ukatu eta baztertzearekin batera, aitorpen partzialak defendatu direlarik.

Biktimen diskriminazioa zuzenbide internazionalaren arabera biktimizaziorako kausa berri bat da, hau da, **biktimizazio bikoitza** inplikatzeko du. Nazioarteko zuzenbideak giza eskubideak unibertsalak izanik, erasotua izan duen eskubidearen arabera berdintasun posizio batean jartzen ditu biktimen eskubideak. Berdin sufritutakoak berdin tratatua izan behar du, subjektua, testuingurua, garai edo eragilea kontutan hartu gabe. Beraz, biktimen artean ez da hierarkiarik ez diskriminaziorik egin behar, eta biktima guztiek merezi dute eskubideen jabe izatea (egia, justizia eta erreparazioa).

Honen inguruan, biktima bat aldi berean indarkeriazko aktorea izan bada, bi egitate horiek era independentean aztertu beharko lirakeela uste du Priscilla Haynerrek⁸². Krimenetako akusatua, (edo zigortua) unibertsalki aitortutako eskubidea dute bidez tratatua izateko. Garrantzitsua da berarentzat azpimarratzea, “terrorismo” karguek ez dutela murrizten bidezko tratamenduaren beharra.⁸³

⁸¹ *El Mundo* egunkarian argitaratua 2014ko urriaren 13an <http://www.elmundo.es/pais-vasco/2014/10/13/543ba618e2704e27238b4573.html>

⁸² Justizia Trantsizionalaren 1. Jardunaldiak (2013) Biktimen politiken gakoak. <https://www.youtube.com/watch?v=1MNFf49qTGE>

⁸³ HAYNER, P. “Justizia trantsizionala Euskal Herrian? Azterketarako oinarritzko printzipioak”, LANDA Jon-Mirena (zuz. Zientifikoa) *Justizia Trantsizionala: proposamenak Euskal Herriarentzat*. Institut Universitaire Varenne. Collection Transition & Justice, 2014, 24 orr.

Biktimen eskubideen errekonozimenduan eta babesean izan den **asimetria hori nolabait ere konpentsatu** egin da Euskal Autonomia Erkidegoan. Aipatu beharra dago Eusko Jaurlaritzak honen harira “*Terrorismoaren biktimekin tratatzeko eta bigarren mailako biktimizazioa saihesteko jardunbide egokien gida orokorra*” atera duela.⁸⁴

Dena dela, garrantzitsuena 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko ekainaren 12ko 107/2012 dekretua izan da. Arau horren bidez, segurtasun-indarrek, eskuin muturreko taldeek eta talde parapolizialek egindako giza eskubideen urraketen biktimak errekonozitzen hasi ahal izan da lehen aldiz. Dena dela, dekretu honek ere **muga handiak** ditu:

Hasteko dekretuaren lerrunak berak muga bat suposatzen du. Heriotza eta kalte larriak eragin dituzten eskubideen urraketa larriek behar duten arretari egokitu beharko litzateke lerruna, eta ondorioz dekretua baino legea izan beharko litzateke. Horrez gain, erabakiek ez dute aditu txosten izaera eta hori gabe erraza da batzordeak hartutako erabakiei aurka egitea izaera administratiboko irizpide formal orokorrak baliatuta.

Beste muga bat, dekretuaren muga denborala da, hau da, 1978ra artekoa biktimei soilik ematen diela babesa. Kontua da, 1978 gerozko biktima bakarrak estatuarentzat terrorismoak sortuak direla eta ondorioz, estatuaren hitza kontraesatea inplikatzeko du norabide horretan pausuak emateak. Honen harira, ikusi beharra dago zer gertatuko den Nafarroako dekretuaren konstituzio kontrakotasun helegitearekin.

Horrez gain, kontuan hartu behar da, tresna hau sortu duen instituzioaren eskumenak mugatuak diren heinean, bere eraginkortasuna mugatua dela. Justizia, estatuaren eskumen eksklusiboa den heinean, gainontzeko inizatibak mugatuak daude eskumen horiekin. Ondorioz, ikertzerako orduan intimitate eskubideak eta horren kontrolaren gainean botere judizialak duen eskumen eksklusiboak zaildu egiten dute administrazio betearazleak biktimak non diren eta nork diren ofizioz ikertzea adibidez.

Bestetik batzordearen esku baliabide pertsonal eta material oso murrizta dago, eta ondorioz eskumena izango lukeen eremuetan ofizioz jardun. Beraz, azkenean biktimak komunikabideen bidez deitzea erabaki zen, eskariak egiteko epe bat utziz. Honek ez zuen behar bezalako eraginkortasuna izan, izan ere hasteko mezua ez zitzaien biktima

⁸⁴ “*Terrorismoaren biktimekin tratatzeko eta bigarren mailako biktimizazioa saihesteko jardunbide egokien gida orokorra*”, Eusko Jaurlaritza, Varona Martinez, G. (IVAC-KREI), 2015 eko ekaina. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/victimas_proyectos/eu_def/adjuntos/Terrorismoaren-biktimak_tratatzeko.pdf

guztiei iritsi eta horrez gain biktimen ekintza positiboaren esku uzten da inizatiba, berari dagokiolarik gertatutako frogatzeko ardura. Manuela Carmenak adierazten duenez⁸⁵, argi geratu zen ez zela prozedura egokia.

Jasotzen diren biktimen eskubideak ere nahiko mugatuak dira. Horren gain honen harira aipatu behar da ia-ia modu eskusiboan mugatzen da erreparazioa eta kalte ordainen alderdira. Ezinbestekoa da, egia, justizia eta errekonozimendurako eskubideen isla egokia ere aurkitzea, konpondu nahi diren urraketen izaeraren arabera arretaren ezinbesteko elementutzat.

Bestetik, dekretuan ematen diren definizio batzuek, bereziki biktimaren definizioak, berrikuspen bat behar dute, justifikaziorik gabeko eskusioak saihesteko. Jon Mirena Landak aipatzen du⁸⁶, egileak bere karguko eginkizunetan ari diren estatu funtzionarioak ez diren kasuetan (edo horrelakorik frogatzerik ez dagoenean) badaudela kasuak hala ere estatuko funtzionarioekin duten loturagatik edo motibazio politikoa badagoelako barneratu beharko lirakeenak. Horregatik, batzordeak hainbat kasutan esan dio Eusko Jaurlaritzari lege-alorra aldatu beharra dagoela, ebaluazioa hain estua izan ez dadin. Hau Balorazio batzordearen memoriek bere gomendioetan jasotzen dute.⁸⁷

Lesio kontzeptua zabalagotzeko aukera aztertu beharko litzateke baita ere: emaitzari ematen zaion garrantzi eskusiboak kanpoan uzten baititu emaitzarik gabeko tortura edo tratatu txar kasuak, baina baita ondorio iraunkorrik utzi ez duten giza eskubideen urraketa frogagarri eta oso larriak ere. Izan ere, besteak beste mina objektibatzen da, ordainik gabe utziz bere sendotasunez edo bere abilitadez sufrimendu objektiboaren arrastoak arintzen gai izan dena.

Bestetik, lesioen definizioak giza eskubideen arloko nazioarteko zuzenbidearen irizpide eta baremoak hartu beharko lituzke erreferentziatzat, EAJak egindako dekretuaren erreforman egin zen bezala. Batzordeak ateratako txostenean⁸⁸ nabarmentzen dute hau baita ere.

⁸⁵ CARMENA Manuela, *op.cit*, 41 orr.

⁸⁶ LANDA, Jon M., Jornada Justicia transicional, palacio de Aiete, Donostian 2013ko azaroaren 17an. <https://www.youtube.com/watch?v=mUX0b1YxLEQ>

⁸⁷ Giza Eskubideen Urraketak jasandako Biktimen Balorazio Batzordearen Txostena 1960-1978. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua, Eusko Jaurlaritza, Hernando, M.; Ormazabal, S., Gil-Robles, A.; Pérez, José A.; Martín, C.; Ezenarro, A. eta Sánchez, M., 2016ko otsailaren 18an. Gomendioak 14. orritik aurrera <http://www.parlamento.euskadi.net/irud/10/00/035942.pdf>

⁸⁸ Giza Eskubideen Urraketak jasandako Biktimen Balorazio Batzordearen Txostena 1960-1978. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua, Eusko Jaurlaritza, Hernando, M.; Ormazabal, S., Gil-Robles, A.; Pérez, José A.; Martín, C.; Ezenarro, A. eta Sánchez, M., 2016ko otsailaren 18an. <http://www.parlamento.euskadi.net/irud/10/00/035942.pdf>

C. PROPOSAMENA

Justizia trantsizionalera jotzen denean, badaude haren arrakasta baldintzatzen duten eremu batzuk orokortzat har daitezkeenak, eta esan daiteke orokorrean egia ezagutzea dela gakoa. Beraz, justizia trantsizionala praktikara eraman den kasu gehienetan egia publikoaren eraikitzea edo memoria historikoaren berreskurapena izan dira lehen pausua⁸⁹. Informazioaren pisuak eta horrek sortzen duten sentsibilitateak ekartzen du benetan elkar ulertzea eta galderak erantzuteko betebeharra. Egia zati hori azalerazteak alda ditzake indar korrelazioa eta eztabaida politikoa.

Hori ikusi da adibidez Erretereriako kasuan, non herri mailan ikerketa zabala egin den eta horrek ekarri duen alderdi guztiak gai izatea memoria bateratu bat eraikitzeko. Bestalde, Glen Cree esperientzian alderdi guztien egia mahai gainean jarri zen eta horrela lortu zuten elkar ulertu eta txosten bateratu bat ateratzea exigentzia juridiko, adiskidetze eta bakeari dagokionean adierazpen aberasgarriekin.

Gure kasuan honen inguruan erresistentzia handia dago. Beraz, gauzak aldatu nahi izanez gero, gizarteari ezagutarazi beharko zaizkio Estatuak sortu dituen biktimak, estaliak utzi dituen gehiegikeriak. Horretarako, gertatu ziren giza eskubideen urraketa horiek ofizialdu behar ditugu eta ofizialtzeak eskatzen du egia mekanismoren bat. Izan ere, bestela, giza eskubideen urraketa kontakizuna zerbait pribatua izango da aurrerantzean ere. Alderdi batzuen ondare politikoa izango da, baina ez herri ondasuna.

Hori egiteko ezin ditugu epaileak erabili, baina legea erabili dezakegu. Esan bezala, Autonomi Erkidegoetan eskumen nahikoa daukagu mekanismo txikiak martxan jartzeko. Horrez gain, gure lurraldean badago baita ere biktimen politikak era barnerakoi batean aurrera eramatekoa borondatea eta bakearen alde indarrak bideratzekoa, eta horren lekuko ditugu orain artean eman diren pausoak.

EAEn eta bai Nafarroan bi dekretu sortu dira helburu horrekin, egia azaleratzeko tresna ere badirenak. Hauek esan bezala, badituzte beren mugak baina potentzial handia ere badute eta hori aprobetxatu beharra dago zerbait handiagoa lortzeko.

Helburu handi hori izan daiteke Jon Mirena Landak proposatzen duen **Bake, giza eskubide eta berradiskidetze euskal Legea**⁹⁰. Azken finean, biolentzia politikoarekin

⁸⁹VALENCIA VILLA, H. "Introducción a la justicia transicional". *Claves de razón práctica*, 180 zk., 2008, 8 orr. <http://escolapau.uab.es/img/programas/derecho/justicia/seminariojt/tex03.pdf>

⁹⁰ LANDA GOROSTIZA J.M., "Ley vasca de paz, derechos humanos y reconciliación: una propuesta". *Hermes: Pentsamendu eta Historia Aldizkaria*, 45 zk., 2013, 28-39 orr. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4458491>

lotutako giza eskubideen bermearen aldeko legea izango litzatekeena, errelatu osoa barne hartuko lukeena. Bertan, motibazio politikoa duten giza-eskubideen urraketa larriak diren neurrian barneratu beharko lirateke, bai terrorismoaren biktimak, bai estatuaren gehiegikeriaren biktimak eta baita ere gerra zibila eta frankismoaren biktimak. Izan ere, indarkeria politikoa ez zen ETArekin sortu, eta gutxienez gerra zibilean kokatu beharra dago.

Honen inguruan, adibidez De la Cuesta esaten du⁹¹, terrorismoaren biktimak, eta “motibazio politikoko indarkeriaren ondoriozko biktimak” tratamendu legal ezberdina eman beharko litzaiekela, arrazoituta biktimaren eta kriminologiaren aldetik desberdinak diren fenomenoak direla, asimilatu eta nahastu behar ez direnak.

Dena dela, orain arteko akatsak ikusita, nire iritziz Jon Mirena Landaren proposamena da egun Euskal herrian behar duguna, behingoz politika banatuak alde batera utzi eta diskriminaziorik gabeko berdintasun baten aldeko apustua egitea da⁹². Bidali behar den mezua izan behar da denok dugula ondo tratatuak izateko eskubidea, berdintasunez tratatuak izateko eskubidea, eta gertatutako giza eskubideen urrapen orok nazioarteko bermeen arabera bideratua izan behar dela, egia, justizia, erreparazioa ezarriaz, eta berriro gertatuko ez denaren bermearekin.

Beraz, lege honek giza eskubideen diskurtsoa berregiten lagunduko luke, giza eskubideen ondarea denona bihurtuz, asimetriarik gabe, sufritu duenaren kolore politikoa kontuan hartu gabe, diskriminaziorik gabe, herri ikuspegiz. Azken finean, orain artean egin ez den bezala, erregulazio hauek interes partidisten eskuetatik atera beharko lirateke, giza eskubideen ikuspegi hutsetik sortutako erregulazioa izatera pasatuz. Honela eginda lege honek funtzio terapeutikoa izango luke Jon Mirena Landaren ustetan.

Testu legal bakarria izateak ez du esan nahi erregulazio bera izango dutenik egoera guztiek. Azken finean, ezberdin arautzea ezinbestekoa da beraien egoerak ezberdinak direlako eta ondorioz erantzun ezberdinak behar dituztelako, batez ere egiaren inguruko politikei dagokionean. Horrez gain, hitzurrean argi utzi beharko litzateke legea zein testuingurutan sortu den, egoera batean non ETaren biktimak babes osoa izan duten

⁹¹ DE LA CUESTA, José L. “Torturaren prebentziorako euskal legea?”. LANDA Jon-Mirena (zuz. Zientifikoa) *Justizia Trantsizionala: proposamenak Euskal Herriarentzat*, Institut Universitaire Varenne. Collection Transition & Justice, 2014, 93 orr.

⁹² Jon Mirena Landa ez da egitura honen aldeko apustua egiten duen bakarra, Priscilla Hayner-ek ere defendatzen du biktimen premietara bideratutako programek ez luketela bereizketarik egin behar talde desberdinen artean. HAYNER, P., *op.cit*, 24 orr.

eta nazioarteko bermeak asetu zaizkielarik, eta berriz gainontzekoei ukatu egin zaizkielarik, ez dutelarik, egiaz, justiziaz eta erreparazioaz gozatu izan.

Honen inguruan, oraindik egia ezagutzen ez den kasu horietarako (bigarren biktimizazioa jasan dutene horientzako) dekretuaren formula, hau da, Balorazio Batzordea, lege tresna berrian txertatu beharko litzateke, aipaturiko mugak ahal den neurrian gaindituz.

Jon Mirena Landak hainbat proposamenak egiten ditu muga horiek gainditzeko⁹³: babes denbora epean zabalduzea, eskabide berriak aurkezteko aldi zabalago bat ezartzea, estaldura esparru berriak erregulatzea⁹⁴, biktimaren eskubideak areagotzea, nazioarteko zuzenbidearen arabeko irizpideak erabiltzea baloratzeko orduan, batzordearen erabakiei aditu txosten izaera ematea, batzordearen jardura eta prozedura gaitasunaren aldaketa batzuk (ofizioz jarduteko aukera aztertzea: dokumentazio eta pertsona bilaketa aktiboa) beste erakunde ofizialei egindako informazio eskaera eraginkorra izatea bermatzea etab. Edonola ere, baliabide pertsonalak eta materialak areagotzeko benetako aukera bat jaso beharko luke dekretuak bere ustetan.

Horrez gain, Balorazio Batzordeak ahalmena izan beharko luke balorazio orokorragoak egiteko, kasuak bideratu ahala, indarkeria politikoaren egiturazko elementuen gaineko kontakizun gisa. Memoria horiek gero Memoriaren institutura eraman ahal izango lirateke. Azken finean, Egiaren batzorde batera ahalik eta gehien hurbiltzea da helburua. Honen bidetik etorriko baita gainontzeko pausuak emateko borondatea piztea.

Bake-legeak, giza eskubideen urraketak arautu ez ezik, horien gaineko politikak nork eraman behar dituen aurrera ere ezarrita utziko luke, politika hauek joko politikoaren atzaparretatik ateratzeko. Horrez gain, Jon Mirena Landak proposatzen du giza eskubideen institutu independente bat sortu beharko litzatekeela, zeinak instituzio publikoen jardura kontrolatuko lukeen eta politikak kudeatzen lagunduko lukeen Pariseko Printzipioak gidari izanik.

⁹³ LANDA Jon-M. Giza eskubideen urraketan biktimei buruzko dekretuak: balantzea eta etorkizuneko perspektiba. LANDA Jon-M (zuz. Zientifikoa) *Justizia Trantsizionala: proposamenak Euskal Herriarentzat*, Institut Universitaire Varenne. Collection Transition & Justice, 2014, 63-76 orr.

⁹⁴ Estaldura esparru berriak erregulatzearen inguruan, esan dugun bezala, komeni da lesio iraunkorrik ez dakarten giza eskubideen urraketari ere horrelako kontsiderazioa ematea. Hau sartuko balitz, aztertu beharko litzateke horrelakoen existentzia salatzen duten lekukotasunak baliozkotzeko protokolo bat arautzeko eta jasotzeko aukera, berariaz honetaz arduratu beharko lukeen talde teknikoarekin batera. Aukera izango litzateke torturaren erregulazioa arau-tresna berezi edo desberdin batera eramatea baita ere beharrezkoa ikusiko balitz.

Horrez gain, lege honen sortze prozesuari dagokionean, herritarren parte hartzearekin egin beharko litzateke. Beraz ezingo litzateke erabili lege bat sortzeko prozedura arrunt bat, formula berri eta originala asmatu beharko litzateke, sufritu eta egoera bizi izan dutenen ahotsa barneratzea lortuko lukeena. Beraz, legea ez litzateke izango botere-ariketa hutsa, oinarritik, herritik datorren borondatea bideratzeko tresna ezin egokiagoa baizik.

Lege hau hego autonomia erkidego bakoitzean lortuko balitz ere, esan daiteke, **justizia trantsizionala zentzu hertsian oraindik urruti egongo litzatekeela**, estatu mailako botere publikoen inplikazioa falta dela eta.

Oraindik faltako litzateke Euskal Herrian ofizialki aitortutako egia hori estatuak ere aitortzea, egoera berrira egokitutako justizia bat ezartzea, armagabetzea eta disoluzioaren inguruan amaiera adostu bat⁹⁵ eta azkenik baita ere erreforma instituzional bat demokratizazioan, bakean eta adiskidetzan sakontzea ekarriko lukeena (adibidez Entzutegi Nazionala desagerrarazi, polizia eta epaileetan aldaketak, tortura ekiditeko neurriak hartu etab).

5. ONDORIOAK

Euskal Herrian bizi izandako indarkeriazko urte luzeak ondoren, gatazka konpondu gabeko eta gatazkaren ondorioak behar bezala bideratu gabeko adibidetzat dugu, lehen trantsizio kritikagarri baten eta ETaren indarkeriaren amaieraren ondoren, ez baitugu egun benetako bake eta nazioartean egokitzen jotzen den berme osorik.

Egoera honen aurrean, eztabaida ezin da izan iraganari aurre egin behar zaion edo ez, baizik eta nola egin behar zaion aurre. Horretarako ezinbestekoa da aipaturiko bermeak geurera ekartzea. Honek dakar praktika aplikagarri bakarra justizia trantsizionalak ematen diguna izatea. Izan ere, indarkeriazko gatazka batek eta honek bai biktimetan eta bai gizarte osoan utzi dituen ondorioez ari garen heinean, txiki geratzen dira gainontzeko justizia motak beraien baitan. Justizia trantsizionalak jasotzen ditu soilik helburu hauetara bideratuak dauden nazioartean adostasuna lortu duten praktika onak, nolabaiteko exigentzia juridiko ere badirenak.

Beraz, justizia trantsizionalari ezetz esaten ari bagara, helburu hauei ezetz esaten ari gara, eta kasu horretan ez ginateke behar bezala iraganari aurre egiten egongo,

⁹⁵ Ezinbestekoa da armagabetzea norbaitek bermatzea. Estatuak prest ez dagoen aldetik kanpoko begiraleen bidez eman izan dira aurrerapausoak. Dena dela, lan hori gobernuak egitea litzateke idealena, horrela izango luketelako egindakoaren inguruan segurtasunik handiena.

etorkizuna baldintzatua geratuko litzatekeelarik. Gatazkak eta honen ondorioak osoki gainditzea helburu izanik justizia trantsizionalak eskainitakoak izan behar dira gai hauen inguruko eztabaidan kontuan izan beharreko irizpideak.

Justizia trantsizionala deitzen diogun horren baitan mugitzea herri bakoitzari dagokio, herri bakoitzak beraien egoerara egokitutako estrategiak eta neurriak diseinatu behar ditu, beti ere justizia eta bakearen ekilibrioa mantenduz.

Gure kasuan, aurreko fasean (espainiar trantsizioa) ez zela egin ikusita, ETArek desagertuaren ondoriozko testuinguru honetan, euskal kasuaren ezaugarriak aukera bat izan daitezke helburu hauek lortzeko. Horretarako, estatuaren borondate faltaren aurrean, pausoak horretarako borondatea dagoen eremuetatik aldebakarki ematea besterik ez da geratzen.

Beraz, Justizia Trantsizionala estatu mailan praktikan jartzea orain arte posible izan ez den arren, estatu-azpiko edo udal mailan posible izaten ari da ekimenak aurrera eramatea. Aurrez aipatu bezala, honek beste eremu batzuetara zabaltzeko joera izan dezake eta beraz gatazkaren eta honen ondorioen ebaspenaren helburua osoki lortzeko aurrerapausuak diren heinean, pausu horiek eman beharrekoak dira.

Bide horretan garbi izan behar dugu, nazioartean ezartzen diren irizpideak izan behar direla neurri hauen gidalerro. Lortu beharko da guztiok begirada alde-bakarra gainditzea eta giza eskubideen eta bake-ikuspegi orohartzaileago batera igarotzea. Giza eskubideen filosofia eta eskakizunak izan behar dira gai hauen oinarri komuna, eta horretan denok bat egin behar dugu bat.

6. BIBLIOGRAFIA

- AGUILAR P. (2013) "Jueces, represión y justicia transicional en España, Chile y Argentina". *Revista internacional de sociología*, Vol. 71, 2 zk., 2013, 281-308 orr. <http://www.lacomunapresxsdel franquismo.org/wp-content/uploads/2012/01/WS-10-P-Aguilar-Spanish-Version-.pdf>
- AGUILAR Paloma *Política de la Memoria y Memoria de la Política*. Madrid: Ed. Alianza, 2008.
- BARROS, C. "Historia, memoria y franquismo". *HAO*, 33zk., 2014 153-171 orr.
- BENGOETXEA J.R. "Transitional Justice versus Traditional Justice: The Basque Case", *Journal on Ethnopolitics and Minority Issues in Europe* Vol 12, 2 zk., 2013, 30-58 orr.
- BULLAIN, I. "Aproximación a la Violencia Política en el País Vasco y Perspectivas de una Justicia Restaurativa para Euskadi". *Oñati Socio-Legal Series*, v. 4, 3zk., 2014, 465-493 orr. <http://opo.iisj.net/index.php/osls/article/view/284/407>
- CALDERÓN CONCHA, P. "Teoría de conflictos de Johan Galtung". *Revista paz y conflictos*, 2 zk., 2009, 60-81 orr. http://www.ugr.es/~revpaz/tesinas/rpc_n2_2009_dea3.pdf
- Deusto Forum (koord.) *Justicia para la convivencia*. Encuentro "justicia retributiva y restaurativa: su articulación en los delitos de terrorismo. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea Argitalpenak, 2012
- GARDNER, J. *Engagement of armed groups in peace processes*, Wilton Park Conference WPS05/34, Conciliation Resources, 2006ko maiatza.
- GIL A., *La justicia de la transición en España. De la amnistía a la memoria histórica*. Bartzelona: Atelier, 2009
- GREIFF, P. "A normative conception of Transitional Justice". *Politorbis*, 50 zk., 2010, 18-29 orr. <file:///C:/Users/lore/Downloads/ch+2.pdf>
- HUESO GARCÍA, V. "Johan Galtung. La transformación de los conflictos por medios pacíficos". *Cuadernos de estrategia*, 111 zk., 2000, 125-159 orr.
- IGNACIO GARCÍA, J. "El final de eta: ¿Lucha contra el terrorismo o resolución de conflicto?" *UNISCI Discussion Papers*, 13 zk., 2007, 9-22 orr. <https://www.ucm.es/data/cont/media/www/pag-72528/Garcia13.pdf>

LANDA GOROSTIZA J.M., “Ley vasca de paz, derechos humanos y reconciliación: una propuesta”. *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria*, 45 zk., 2013, 28-39 orr.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4458491>

LANDA Jon. M. (zuz. Zientifikoa) *Justizia Trantsizionala: proposamenak Euskal Herriarentzat*, Institut Universitaire Varenne. Collection Transition & Justice, 2014

LETAMENDIA F. “La política ante el fin de ETA”, *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria*, 45zk., 2013, 60-73 orr.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4458557>

MÍNGUEZ-ALCAIDE, X.; ALZATE SÁEZ DE HEREDIA, R. eta SÁNCHEZ DE MIGUEL M. (2014); “La Paz en el País Vasco. Una interpretación desde los significados sociales” *Revista de Paz y Conflictos*, 7 zk., 2014, 53-77 orr.
<https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/4728249.pdf>

ORÉ AGUILAR, G., E. HERBOLZHEIMER, K. “La justicia en los procesos de paz: del dilema a la oportunidad”. *Papeles*, 97 zk., 2007, 23-32 orr.
<http://www.rebellion.org/docs/81257.pdf>

RETTBERG, A. (koord.) *Entre el perdón y el paredón: preguntas y dilemas de la justicia transicional*. Bogotá, D.C.: Departamento de Ciencia Política, CESO, Ediciones Uniandes, 2005

ROA SUÁREZ H. “Entrevista a johan galtung. construyamos paz y democracia en américa latina: aportes a su debate y concreción”, *Análisis Político*, vol. 25, 75 zk., 2012,
<http://www.revistas.unal.edu.co/index.php/anpol/rt/printerFriendly/43510/44801>

RODRÍGUEZ MONTENEGRO, G.P. “Los límites del perdón. Notas sobre la justicia transicional en Sudáfrica, Centroamérica y Colombia”, *Justicia Juris*, Vol. 7. 2 zk., 2011, 52-66 orr.
[http://www2.congreso.gob.pe/sicr/cendocbib/con4_uibd.nsf/16DD8FF2C5C1DACB05257B0B0070C84A/\\$FILE/Articulo5.pdf](http://www2.congreso.gob.pe/sicr/cendocbib/con4_uibd.nsf/16DD8FF2C5C1DACB05257B0B0070C84A/$FILE/Articulo5.pdf)

SAINZ DE ROZAS, R. “Violencia estructural y cultura de paz”, *Papeles*, 61 zk., 1997, 57-70 orr. <http://www.memoriadigitalvasca.es/bitstream/10357/30322/1/108310.pdf>

TAMARIT SUMALLA, J. “Memoria histórica y justicia transicional en España: el tiempo como actor de la justicia penal”. *Anuario Iberoamericanode Derecho Internacional Penal*, vol. 2, 2014, 43-65 orr.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4998572>

TAMARIT SUMALLA, J. Los límites de la justicia transicional penal: la experiencia del caso español. *Política criminal*. Vol. 7,13zk., 2012, 74 - 93.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4095187>

TEITEL, R. "Transitional Justice Genealogy". *Harvard Human Rights Journal*, Vol. 16, 2003. Itzulpena: <http://www.cdh.uchile.cl/media/publicaciones/pdf/18/59.pdf>

UPRIMNY YEPES, R.; SAFFON SANÍN, M.P.; BOTERO MARINO, C. y RESTREPO SALDARRIAGA, E. *¿Justicia transicional sin transición? Verdad, justicia y reparación para Colombia a Colección ensayos y propuestas*. Bogotá, D.C.: Centro de Estudios de Derecho, Justicia y Sociedad, 2006.

VALENCIA VILLA, H. "Introducción a la justicia transicional". *Claves de razón práctica*, 180 zk., 2008, 76-82.
<http://escolapau.uab.es/img/programas/derecho/justicia/seminariojt/tex03.pdf>

7. TXOSTENAK

¿Qué es la justicia transicional?, Centro Internacional para la Justicia Transicional, 2009.
<https://www.ictj.org/sites/default/files/ICTJ-Global-Transitional-Justice-2009-Spanish.pdf>

2013-2016ko bake eta bizikidetzeta plana. Gizartea elkartzea helburu. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, 2013ko ekainaren 11an
<http://www.ehu.eus/documents/1687243/2126107/Bake+eta+bizikidetzeta+Plana.pdf>

Conjunto de principios actualizado para la protección y la promoción de los derechos humanos mediante la lucha contra la impunidad", anexo al informe de Diane Orentlicher, experta independiente encargada de actualizar el conjunto de principios para la lucha contra la impunidad E/CN.4/2005/102/Add, Giza Eskubideen Komisia, 2015eko otsailaren 8an
http://ap.ohchr.org/documents/dpage_s.aspx?si=E/cn.4/2005/102/Add.1

Conjunto de Principios para la Protección y Promoción de los Derechos Humanos Mediante la Lucha contra la Impunidad, Giza eskubideen kontseilua, Orentlicher, D., 2005, 27 eta 28 artikulua.
<http://www.derechos.org/nizkor/impu/impuppos.html>

Declaración sobre los principios fundamentales de justicia para las víctimas de delitos y del abuso de poder 40/34, Natuen Batzar Nagusia, 1985eko azaroaren 29an.
<http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/VictimsOfCrimeAndAbuseOfPower.aspx>

Derechos humanos y justicia de transición 2005/70, Giza Eskubideen Batzordea, 2005eko apirilaren 20koa, ap.ohchr.org/documents/S/CHR/resolutions/E-CN_4-RES-2005-70.doc

Dictamen sobre indemnizaciones a víctimas de terrorismo. Instituto Vasco de Criminología (IVAC-KREI) - UPV/EHU, Muñagorri Laguía, I.; Pérez Machío eta Ana I., 2014ko urtarrilaren 13an. <http://www.parlamento.euskadi.net/irud/10/00/016462.pdf>

Etxerat Hilabetekaria, Etxerat (Euskal preso eta iheslari politikoen senide eta lagunak, 2015eko ekaina http://www.etxerat.eus/descargas/informes/mensual/2015/2015_junio_eu.pdf

Euskal Estatua irudikatzen. Euskal Estatuaren aurreko iritzia eta jarrera Euskal Herrian. Azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa, Parte Hartuz Ikerketa taldea (UPV/EHU) eta Ipar Hegoa Fundazioa, 2016 http://www.iparhegoa.org/images/argitalpenak/euskal_estatua_irudikatzen_web.pdf

Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketari buruzko oinarritzako txostena (1960-2013), Eusko Jaurlaritza, Carmena, M.; Landa, Jon M.; Múgica, R. eta Uriarte, Juan M., 2013 http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/giza_eskubideen_urraketak.pdf

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Planaren bitarteko ebaluazioa. Azken txostena, Eusko Jaurlaritza, Toscano, R.; Morales, C.; Nuñez, Jesús A.; Rey eta Rey, F. 2015eko ekainean, 11 orr. http://www.euskadi.eus/contenidos/plan_programa_proyecto/xleg_plangub_01/eu_plan_g_01/adjuntos/EVALUACION%20PLAN%20DE%20PAZ%20EUSK.pdf

Euskobarometroa- Euskal iritzi publikoari buruzko aldizkako azterketa, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2016 57 orrialdea http://www.ehu.es/documents/1457190/1525260/eb_2016_01_euskera

Gernikako seme-alabak. Euskal Herria 1960-2010, Euskal Memoriaren fundazioa, 2010.

Giza Eskubideen Urraketak jasandako Biktimen Balorazio Batzordearen Txostena 1960-1978. Ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua, Eusko Jaurlaritza, Hernando, M.; Ormazabal, S.; Gil-Robles, A.; Pérez, José A.; Martín, C.; Ezenarro, A. eta Sánchez, M., 2016ko otsailaren 18an. <http://www.parlamento.euskadi.net/irud/10/00/035942.pdf>

Hacia una memoria compartida. Informe sobre violaciones de derechos humanos y hechos violentos acaecidos en Errenteria de 1956 a 2012, Argituz, 2015eko otsaila.
<http://herribizia.errenteria.eus/wp-content/uploads/sites/2/2015/11/HACIA-UNA-MEMORIA-COMPARTIDA.pdf>

Informe del Relator Especial sobre la promoción de la verdad, la justicia, la reparación y las garantías de no repetición A/HRC/21/46, Giza eskubideen kontseilua, Greiff, P., 2012ko abuztuaren 9an.
http://www.ohchr.org/Documents/HRBodies/HRCouncil/RegularSession/Session21/A-HRC-21-46_sp.pdf

Mapa (incompleto) de conculcaciones del derecho a la vida y a la integridad física y psíquica en relación a la violencia de motivación política relacionadas con el caso vasco. Argituz. [http://www.vientosur.info/documentos/mapa_final%20\(1\).pdf](http://www.vientosur.info/documentos/mapa_final%20(1).pdf)

Principios y directrices básicos sobre el derecho de las víctimas de violaciones manifiestas de las normas internacionales de derechos humanos y de violaciones graves del derecho internacional humanitario a interponer recursos y obtener reparaciones 60/147, Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2005eko abenduaren 16an.
<http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/RemedyAndReparation.aspx>

Terrorismoaren biktimekin tratatzeko eta bigarren mailako biktimizazioa saihesteko jardunbide egokien gida orokorra”, Eusko Jaurlaritza, Varona Martinez, G. (IVAC-KREI), 2015eko ekainaren 16an.
http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/victimas_proyectos/eu_def/adjuntos/Te rrorismoaren-biktimak_tratatzeko.pdf

The Administration of Justice and the Human Rights of Detainees. Question of the impunity of perpetrators of human rights violations (civil and political) E/CN.4/sub.2/1996/18, Nazio Batuen Giza eskubideen babesa eta sustapenerako azpikomisia, Joinet, L., 1996ko ekainaren 20an.
https://www1.umn.edu/humanrts/demo/RightsOfDetainees_Joinet.pdf

The Basque Conflict and ETA The Difficulties of an Ending. Special Report 384, United States Institute of Peace, Whitfield T, 2015eko abenduaren 12an.
http://cic.nyu.edu/sites/default/files/whitfield_basque_conflict_eta_dec2015.pdf

The rule of law and transitional justice in conflict and post-conflict societies S/2004/616, Nazio Batuen Erakundearen Idazkari Nagusia, 2014ko abuztuaren 23an.
<http://www.ipu.org/splz-e/unqa07/law.pdf>

8. JARDUNALDIAK

GARDNER, J. Engagement of armed groups in peace processes, Wilton Park Conference WPS05/34, Conciliation Resources, 2006ko maiatza.

Justizia Trantsizionalaren 1. Jardunaldiak (2013)

<https://www.youtube.com/watch?v=1MNFf49qTGE>

9. ALBISTEAK

ABC egunkarian argitaratua 2011ko urriaren 19a: “Carta abierta de Basagoiti a Kofi Annan” <http://www.abc.es/20111019/espana/abci-carta-basagoiti-kofi-annan-201110191921.html>

Argia astekarian argitaratua, 2016ko maiatzaren 10ean: “Hasier Arraiz epaiaren zain, fiskaltzak eta defentsak akordioa lortu eta gero” <http://www.argia.eus/albiste/hasier-arraiz-epaiaren-zain-fiskaltzaren-eta-defentsaren-akordioa-eta-gero>

Berria egunkarian argitaratua 2016ko apirilaren 14an. “4/2014 sumarioko auzipetuak ez dituzte espetxera sartuko, fiskalarekin akordioa eginda” http://www.berria.eus/albisteak/121698/42014_sumarioko_auzipetuak_uz_dituzte_esp_etxera_sartuko_fiskalarekin_akordioa_eginda.htm

EITB- ren orri digitalean argitaratua 2016ko azaroaren 2an: “El parlamento vasco reclama rigor ante la tortura” <http://www.eitb.eus/es/noticias/politica/detalle/3831646/el-parlamento-vasco-reclama-rigor-tortura/>

El Mundo egunkarian argitaratua 2014ko ekainaren 23an: “Guardias civiles acusan a Pablo Iglesias de cruzar 'el límite ético' al ver 'explicaciones políticas' en ETA” <http://www.elmundo.es/espana/2014/06/23/53a889fe268e3e7e308b4573.html>

El Mundo egunkarian argitaratua 2014ko urriaren 13an: “Garitano censura la clasificación de víctimas 'de primer y segundo nivel” <http://www.elmundo.es/pais-vasco/2014/10/13/543ba618e2704e27238b4573.html>

El País egunkarian argitaratua 2002ko azaroaren 21ean: “El PP condena el golpe de Franco y promete honrar a todas las víctimas de la Guerra Civil” http://elpais.com/diario/2002/11/21/espana/1037833222_850215.html

El País egunkarian argitaratua 2013ko azaroaren 17an: “Subijana descarta la aplicación de una justicia transicional en el caso vasco”
http://ccaa.elpais.com/ccaa/2013/11/07/paisvasco/1383827977_332581.html

Gara egunkariak argitaratua 2014ko martxoaren 11an: “Interior estaría prevaricando para no indemnizar a víctimas del GAL y BVE”
http://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/gara_2014-03-11-06-00/hemeroteca_articulos/interior-estaria-prevaricando-para-no-indemnizar-a-victimas-del-gal-y-bve

Gara egunkarian argitaratua 2014ko abenduaren 19an: “Mosaico de hechos en una agenda negra a abordar sin tópicos”
http://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/gara_2014-12-09-06-00/hemeroteca_articulos/mosaico-de-hechos-en-una-agenda-negra-a-abordar-sin-topicos

Gara egunkarian argitaratua 2016ko maiatzaren 2an: “Aranzadik Gogoraren esku utzi du frankismoan errepresaliatutakoen inguruko fitxategia”
<http://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20160502/aranzadik-gogoraren-esku-utziko-du-frankismoan-errepresaliatutakoen-inguruko-fitxategia>

Gara egunkarian argitaratua, 2016ko apirilaren 25ean: “La persona torturada quedó libre en el 41% de 5.022 casos ya verificados”
http://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2016-04-25/hemeroteca_articulos/la-persona-torturada-queda-libre-en-el-41-de-5-022-casos-ya-verificados

Gara egunkarian argitaratua, 2016ko maiatzaren 5ean: “El Parlamento navarro rechaza la práctica de la tortura y pide el fin de la incomunicación”
<http://www.naiz.eus/eu/actualidad/noticia/20160505/el-parlamento-navarro-rechaza-rotundamente-la-practica-de-la-tortura-y-pide-el-fin-de-la-incomunicacion>

Noticias de Gipuzkoa egunkarian argitaratua 2016ko apirilaren 30ean: “Interior deberá indemnizar a la familia de Tomás Alba”
<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2016/04/30/politica/interior-debera-indemnizar-a-la-familia-de-tomas-alba>

10. JURISPRUDENTZIA

Auzitegi Gorenak 197/2006 epaia, otsailaren 20koa.

Auzitegi Gorenaren 101/2012 epaia, otsailaren 27koa.

Auzitegi Konstituzionalaren 361/1993 epaia, abenduaren 3koa.

Entzutegi Nazionalaren 162/2015 epaia, uztailaren 24koa

Entzutegi Nazionalaren 192/2015 epaia, uztailaren 1ekoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 267/2015 epaia, apirilaren 24koa.

11. ARAUDIA

16/2015 legea, apirilaren 10ekoa estatuko indarren eta eskuin muturreko indarkeriaren biktimen erreparaziorako legea (Nafarroa)

426/2013 dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko dekretua aldatzen duena. (EAE)

55/2010 dekretua, terrorismoaren biktimen partaidetzarako kontseilua arautzen duena (EAE)

Amnistia legea 46/1977, urriaren 15ekoa.

Memoria Historikoaren Legea, 52/2007, abenduaren 26koa.

Orden 31 de octubre de 1938, sobre enterramientos en templos y criptas (EAO-ean azaroaren 3an)

Orden de 22 de octubre de 1936, dictando normas para el traslado de cadáveres de los muertos en campaña (EAO-ean urriaren 28an)

Reconocimiento y Protección Integral a las Víctimas del Terrorismo 29/2011 Legea, irailaren 22koa.

Reconocimiento y Reparación a las Víctimas del Terrorismo, 4/2008 legea ekainaren 19koa.

Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legea (EAE)

Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretua, 2010eko abenduaren 15ekoa (EAE)

1. ERANSKINA: GATAZKAREN AURREKARIAK

Badira nahiko oinarri esateko, euskal herriak aspaldidanik gatazka etnonazionalal¹ bat bizi izan duela, bere subiranotasuna galtzen joan den bitartean honen aldeko defentsa egin duelarik. Historiagile askok defendatzen duten bezala, subiranotasun hori ez dio espainiar estatuari borondatez entregatu izan.

Euskal Herrian oso zabaldua dagoen ikuspegi historiografiko eta politiko baten arabera, euskaldunen subiranotasuna konkistaz galtzen da, garaipen militarren ondorioz, euskaldunek bere instituzio eta eskubide propioak (foruak) eta Erresumarekiko harreman berezia mantendu ahal izan zituzten ordea Errestaurazio garaia arte.

XIX. mendean estatuko zentralismoaren eta industrializazioarekin etorritako jende masen ondorioz foruak galtzeko beldurra sortu zen Euskal Herrian. Gerra karlistetan, euskaldun gehienak Carlosen alde jarri ziren honek foruak errespetatzeko promesa egin zuelako, eta Isabel liberala izanik berdintasunaren izenean foruak desagertarazi zitzakeenaren beldurrez. Azkenean, 1876an liberalek irabazi zuten eta aurreikusi bezala Canovasen gobernuak dekretu bidez foruak deuseztatu zituen. Egoera honetan kontzertu ekonomikoa lortu ahal izan zen.

Errestaurazio garaian, 1890. urtean gizonezkoen sufragio unibertsala aldarrikatu zen, eta garai honetan alderdi politikoak sortu ziren. Horrela, euskal nazionalismoa sortuko zen, hau da, mugimendu zein alderdi politiko bat zeinaren planteamenduak eta programak euskal herriarentzat diren, eta euskal kultura, hizkuntza eta nazioaren defentsa izango duten errebindikazio moduan. Euskal nazionalismoaren gidari nagusia Sabino Arana izan zen Euskal Alderdi Jeltzalea sortu zuelarik 1985ean. Bere ideologia euskal arraza, foruak eta erlijioan oinarritukoa izan zen, eta euskal 7 probintziek nazio bat osatzen dutela kontsideratuta independentziaren aldeko aldarrikapenak egin zituen.

Euskal nazionalismoak burujabetzaren aldeko borroka egingo du. Dena dela, gerra zibilaren ondoren, Francoren diktadura garaian errebindikazio eta proiektu nazionalistak etenda geratu ziren. Errepresio politiko handia jasan zuen euskal gizarte nazionalistak, errejimen frankistarekiko, *nacional-catolicismo* deritzon ideologiarekiko oposizio mota oro bezala, eta egoera horretan EAJ-ren gazteetatik ETA sortu zen. ETA-ren sorkuntza ezin da ulertu frankismoa eta sabiniar ideologia nazionalistarik gabe.

¹ MÍNGUEZ-ALCAIDE, X.; ALZATE SÁEZ DE HEREDIA, R. eta SÁNCHEZ DE MIGUEL M. (2014); "La Paz en el País Vasco. Una interpretación desde los significados sociales" *Revista de Paz y Conflictos*, 7 zk., 2014, 54 orr. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/4728249.pdf>

Franco hil ondoren ordea estatu demokratiko baterantza trantsizioa hasi zen. Amnistia legea indarrean sartu zen eta 1978an konstituzio berria aldarrikatu zen. Espainiar estatua estatu autonomiko bihurtu zen eta hegoaldeko euskal lurraldeak bi autonomia erkidego ezberdinetan osatu ziren, Nafarroa alde batetik, eta gainontzeko hiruk bestetik, autonomia hauei eskubide historiko batzuk aitortzen zitzaizkielarik. Dena dela, konstituzioak argi uzten du, *nazio* bakarra Espainia dela, eta autonomien azpian dagoen base sozial orori *nazionalitate* deitzen dio.

Espainiar historialari eta politologo askorentzat, nagusia izan den ikuspegia izanik, espainiar trantsizioa eredugarria izan zen. Iritzi bera jasotzen du, Auzitegi Gorenaren otsailaren 27ko 101/2012 epaiak.

Dena dela, hainbat eta hainbat dira trantsizioari kritika gogorrak egiten dizkietenak. Alde honetatik nabarmentzen da, justizia ahaztea eta erreparazio edo ordain mugatu eta zatikatu batzuetara jo zela, eta horrez gain, amnesia eta memoria eza egon zela, giza eskubideen urraketak Amnistia legeak “zuritu” egin bait zituen. Horrez gain, ez zen aldaketa estruktural garrantzitsurik eman ezta ere. Hau sakonkiago aztertzen du “Justizia Trantsizionalaren aplikazioa” atalean, estatuak hartutako neurriei erreferentzia egiten zaielarik.

Horrez gain, salatzen da erregimen frankistak berak zuzendu zuela trantsizioa. Juan Carlos I erregea gorte frankistek ezarri zuten Franko diktadore beraren proposamenez, eta honek bere bizitzaren azken egunetan erregeari Espainiako batasuna mantentzeko agindu zion, erregeak berak dokumental batean aitortu duen bezala².

Honen kostu bezala irudikatu dute hainbatek espainiar estatuko kultura demokratiko falta eta bidegabekeriaren jarraipena: GAL, tortura, eta segurtasunen indarrek burututako beste hainbat ekintza. Honek berarekin ekarri duelarik inpunitatearen kultura.

Kontua da, trantsizioa kudeatzeko modu hau euskal herrian bizi izan den gatazka politiko eta armatua ulertzeko ezinbestekoa dela. Trantsizioan ez da nahikoa egiten indarkeriaren eta giza eskubideen urraketan testuinguruarekin amaitzeko, are gehiago, orduan etorriko dira garairik latzenak euskal gatazkaren inguruko giza eskubideen urraketari dagokienean.

Beraz frankismoaren eta hauen ondorengoaren oposizio gisa eta “euskal nazio askapenerako mugimendu gisa”, ETA, ez zen trantsizio horretan desegin, sistema aldaketa horretan jarraitu zuen biolentzia armatua erabiltzen, Estatuarekiko gatazka

²El Público aldizkari digitalean argitaratua 2016ko otsailaren 16an <http://www.publico.es/politica/rey-juan-carlos-i-franco.html>

politikoaren tesiari eutsiz. Honakok arrazoitu zituzten ezker abertzaleak konstituzioaren aurka bozkatzeko eskatzerakoan, trantsizio bete betean:

*“puedo decir que para nosotros el rechazo al referéndum constitucional es una forma de propugnar la autodeterminación del pueblo vasco, derecho que, por otra parte, esta Constitución nos niega. Me parece que el paso de la dictadura franquista a una democracia burguesa no se puede hacer sin ruptura y esta situación todavía no se ha dado en Euskadi. En política hay que ser realistas y en Euskadi volvemos a vivir los tiempos del franquismo con prohibiciones de actos, detenciones, muertes, torturas, etcétera... Si queremos evitar mayores males hay que dialogar en torno a los puntos que hoy enfrentan al Gobierno con la izquierda abertzale. El programa de KAS debe ser discutido o negociado entre el Gobierno y las fuerzas que integran Herri Batasuna. Ante la actual situación quedan dos alternativas, o la represión continuada contra el pueblo vasco o la negociación del Gobierno con la izquierda abertzale”.*³

³ Txomin Ziluagaren hitzak. El País egukarian argitaratua 1978ko azaroaren 19an <http://www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/linz/documento.asp?reg=r-8305>

2. ERANSKINA: GATAZKA POLITIKOAREN INGURUAN GOGOETA BATZUK

Esan dugu euskal alderdi nazionalistek printzipio demokratikoetan oinarrituta defendatzen dutela beren erabakitze eskubidea eta bestetik, estatuak ere printzipio bera aldarrikatzen du, beste printzipio batzuekin batera, eskubide honen existentzia ukatzeko.

Egoera honen aurrean **ikus dezagun zein inplikazio duten printzipio demokratikoen inguruabar honetan**, aurrera eramane beharreko eztabaida politikoa argitze aldera.

Printzipio demokratikoak bere baitan, galdatzen dute ez bakarrik herri edo estatu batek osotasunean adierazten duen borondatea errespetatua izatea, baizik eta entitate nahikoa hartzen duen edozein borondate politiko entzun eta aurrera eramatekoa. Beraz, printzipio demokratikoen bere baitan euskal herriaren pretentsioak onartuak izateko beharrera eramaten gaituzte, horiek ez onartzeko arrazoi garrantzitsurik ez badago.

Dena dela, hemen ez da amaitzen kontua, izan ere, gure estatuan printzipio demokratikoa beste printzipio batzuetara lotua agertzen da, besteak beste legearen inperioa edo legalitate printzipioa. Printzipio honen arabera berriz, erantzuna kontrakoa da, izan ere, legea bete beharra dago eta espainiar legeak ez du horretarako aukerarik ematen.

Hau horrela izanik, ezin da printzipio bakoitza ulertu bestea urratuz, hau da, printzipioen arteko harremana ezin izango da ulertu bata bestearen gainean jarriz. Beraz, JIMENEZ SANCHEZ autorearen arabera printzipio demokratikoak kontzeptzio normatiboaren arabera ulertu behar dira¹.

Printzipio demokratikoak Hobbes-en subiranotasunaren kontzeptzio faktikoan oinarrituko teoriaren arabera onartzen baditugu, borondate politikoan oinarrituta erabakitzeko eskubide bat justifikatu daiteke. Borondate politiko berri bat sortzen bada, pakto sozial berri baten bidez bideratu behar da, aurrekoak zilegitasuna galduko duelarik. Teoria honek ez du legalitate printzipioa kontuan hartzen, beraz, ondorioztatzen da printzipio demokratikoa ezin dela horrela interpretatu.

Beraz, kontzeptzio normatiboa da egokia dena, ikuspuntu honek printzipio demokratiko eta zuzenbide estatuaren printzipioaren artean oreka bat lortzen baitu. Kontzeptzio hau

¹ *“la necesidad de establecer que la relación entre el principio del Estado de derecho y el principio democrático no puede serlo de preeminencia de ninguno de ellos sobre el otro. La razón se encuentra en que no cabe entender el principio democrático como la mera suma de las voluntades particulares de una determinada colectividad, sino como expresión de las condiciones que aseguran la conformación de una voluntad política racional. El principio democrático sólo puede comprenderse así desde una concepción normativa y no fáctica del poder soberano.”* JIMÉNEZ SÁNCHEZ, José J. “Principio democrático y derecho a decidir”. *Revista d'estudis autonòmics i federals*, 19 zk., 2014, 223 orr. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/4740053.pdf>

Spinoza, Rosseau eta Hegel-ek defendatu zutena da. Honen arabera, pakto soziala sortzean egiten diren legeen menpe geratze gara, eta errespetatu egin behar ditugu. Beraz espainiar gehiengo baten araberako legeak onartu beharko dira eta printzipio demokratikoen baitan ezin daiteke autodeterminazioa eskubide bezala ulertu.

Beraz, hau da eztabaida politikoaren abiapuntua JIMENEZ SANCHEZ-en arabera². Gatazka politikoa plano normatibo-juridikotik (zuzenbide positibotik) kanpo kokatu beharko litzateke. Izan ere, orain artean azaldu moduan printzipio demokratikoetatik ezin daiteke horrelako eskubiderik ondorioztatu, eta nazioartean ere koloniei salbu gainontzeko nazio/herriei ez zaie aitortzen autodeterminazio eskubiderik.³ Horrez gain, kolonia kontsiderazioa zein lurraldek izango duten hiru ezaugarri finkatuz zehaztu zen, besteak beste kokapen geografiko urrundu bat.⁴

Dena dela, aldi berean deritzot, bi printzipioak batera interpretatu behar badira, printzipio demokratikoa azpian gera ez daitezen estatuak eskari hauek entzun eta kontuan hartu beharko litzateke, hauen inguruko eztabaida bat abian jarritz. Termino politikoetan eztabaidatu beharko litzateke interes hauen inguruan, onartzeko edo ukatzeko arrazoiak emanez, ondoren legegintza eztabaida hauekiko koherentea izan beharko litzatekeelarik. Interes hauek ukatzeko eztabaida plano normatibo juridikoan kokatzea, hau da, ezetza legeak onartzen ez duela argudiatzea legalitate printzipioa printzipio demokratikoen gainean jartzea izango litzateke, gure ordenamenduaren interpretazioaren arabera onartezina dena.

Aurrez aipaturiko autoreak hau ez du horrela ikusten funtsean, dena dela, irtenbide arrazionalena dela arrazoituta, antzerako planteamendua egiten du:

*“Ante esta situación es cuando cabe apelar a la solución canadiense, pero no porque exista un principio democrático que la respalde –no hay ningún principio que pudiera hacerlo–, sino porque existe una situación de enfrentamiento ante la que por primera vez en nuestra historia no deberíamos dar una solución cainita, sino racional. Tendríamos que ser capaces de alcanzar una salida pacífica y razonable para lo que no es sino una reivindicación pacífica”.*⁵

Canadako auzitegiak ebatzi zuen Quebec ezin zela banatu aldebakarki estatuarekin negoziatu gabe, legea urratzen zuen aldetik: *“Cualquier intento de llevar a cabo la secesión de una provincia del resto de Canadá debe estar de acuerdo con lo establecido*

² JIMÉNEZ SÁNCHEZ, José J. *art.cit.*, 231 orr.

³ Batzar Orokorra (1960) 1514 (XV) ebazpena

⁴ Batzar Orokorra (1960) 1541 (XV) ebazpena

⁵ JIMÉNEZ SÁNCHEZ, José J. *art.cit.*, 232 orr.

en la Constitución canadiense, ya que de lo contrario se violaría el orden legal vigente". Dena dela, aldi berean ondorioztatu zuen botere exekutiboa obligatua zegoela negoziatzera.

Horrez gain, ondorioztatu zuen sezesioaren aldeko gehiengoaren borondate politikoak legitimatu egingo lukeela inizatiba eta gainontzean estatuak baldintza batzuk onartu beharko lituzkela hori bideratzeko. *"ese orden constitucional quedaría afectado si una clara mayoría declarara de forma inequívoca su deseo de no permanecer en Canadá. En ese caso, "nuestra Constitución y nuestra historia" exigirían que los derechos, obligaciones y aspiraciones legítimas de todos los canadienses fueran respetados."*⁶

Eztabaidaren bidez, eta interesa dutenekin negoziatuz, mila irtenbide egon daitezke bi alderdien interesak nolabait asetu ditzaketenak, eta horiek bilatzen saiatzeko obligazioa dagoela esan daiteke, nire uste apalean.

⁶ Canadako Auzitegi Gorenak 1998ko abuztuaren 20an.

3. ERANSKINA: ETAREN BEHIN-BETIKO SU ETENAREN ARRAZOIEN INGURUKO GOGOETA

ETAk aldebakarrez onartu zuen 2011an indarkeriarekin amaitzea, aurretiazko inongo akordiorik gabe. Zirkunstantzia konbinazio konplexu bati esker iritsi gara egoera honetara, esan daiteke gehienbat **ezker abertzalearen ideia eta estrategia aldaketa** eta euskal gizartearen ahalegin eta eskariei esker.

ETAren lehen pausua 1995ean etorri zen, *alternatiba demokratikoa*¹ aldarrikapenarekin, non jada bi negoziazio gune ezberdin bereizi zituen. Euskal Herritarren esku uztea erabaki zen Euskal Herriaren antolaketari eta etorkizunari dagozkion atal guztiak, emaitza dena delakoa izanik errespetatzera konprometitzen zelarik. ETA-rekin negoziatu beharrekoak berriz, presoak, armagabetzea eta disoluzioa izango liriateke. Beraz, erabaki honekin nolabait ETA-ren papera amaitutzat jotzen hasi zen helburu politikoei dagokienean, gatazkaren ondorioetara mugatuz. Lizarra Garaziko eztabaidak etorri ziren ondoren ETAk PNV eta EA-rekin negoziatu zuelarik, dena dela, ez zen lortu ETAren su eten definitiborik.

Ondoren, 2004an, Anoetako proposamena egin zuen Arnaldo Otegi non jada bide honekiko oraindik eta apustu garbiago bat egin zen. Horrez gain, ezker abertzaleak bakerako zuen borondatea eta konpromisua adierazi zituen.

Bere aldetik ETAk 2006ko martxoaren 24an su etena iragarri zuen, marko politiko berri bat lortzeko helburuarekin, eta horretarako Josu Luis Rodriguez Zapaterorekin negoziazioak hasi zituen, zuzenean Espainiako presidenteeekin historian egiten zituen hirugarrenak izanik (Felipe Gonzalez eta Aznarrekin aurrez).

Negoizazio hauek Arnaldo Otegi eta Jesus Egigurenek Euskal Herrira bakea ekartzeko helburuarekin izandako hainbat bilerari esker etorri ziren. Negoizazio honetan jada ETAk gobernuari egindako eskariak ez ziren autodeterminazio eskubidearen ingurukoak (hau da helburu politikoen ingurukoak), baizik eta batez ere ezker abertzaleari lan politikoa era aske batean egiten uztearen ingurukoak izan ziren (partiduen legearen derogazioa, Parot doktrinaren derogazioa, presoena trataera, atxilotzeen inguruan etab).

2006ko urrian berriz Loiolako elkarrizketak hasi ziren, Egiguren, Otegi eta Iñigo Urkulluren artean, nahiz eta Otegi eta Egigurenek lehenagotik egiten zituzten helburu honekin bilerak esan bezala. ETAk azaroan komunikatu bidez adierazi zuen

¹ ETAren agiria 1995eko apirilaren 20an. 1995 eko apirilaren 26an Egin egunkarian argitaratutakoa.

errepresioak jarraitzen zuela eta ondorioz Barajaseko atentatuak amaiera jarri zion ETAREN su etenari 2006ko abenduan.

Testuinguru honetan, ezker abertzalearen baitan eztabaida prozesu bat hasi zen 2008an, 2009an Altsasuko adierazpena egin zelarik eta azkenik 2011an Ezker Abertzalearen eztabaidaren ondorioak *Zutik Euskal Herria* izeneko adierazpenean argitaratu zirelarik.

Esan daiteke urte hauetarako modu nabarian ETAK euskal gizartearen zilegitasuna galdua zuela. Beraz, zilegitasuna galtze horrek, ETAREN estrategietan aldaketa bultzatu zuela pentsatzea orokorra da, izan ere, ETA bezalako erakunde batek bertako biztanleen babesa eduki behar du bere informazio, errekruta, finantziario iturriak eta laguntza logistikoa bermatzeko. Bestalde, Ezker Abertzalearen helburua Euskal Herriaren izenean negoziazio politiko egitea zela kontuan harturik, ezinbestekoa du baita ere herriaren babesa edo gutxienez aurka ez azaltzea.

Aldi berean, denbora honetan Euskal Herrian bakearen aldeko **euskal mugimendutik aktore ezberdinak sortzen** joan ziren, eragin handia izan zutelarik iritzi publikoan eta esparru politikoan, nabarmendu behar delarik Gesto por la Paz-en eta Elkarriren (gero Lokarri izango zena)-ren lana.

Hainbat urteko lana eta mediazioaren ondoren, Lokarrik, gatazkaren konponbidea sustatzeko nazioarteko konferentzia edo Donostiako Nazioarteko Bake Konferentzia deitua antolatu zuen 2011ko urriaren 17an, gaitzat Euskal Herriko gatazkaren konponbidea zuena. Aiete izenez ere ezaguna den konferentzia horretan Euskal Herriko nahiz nazioarteko hainbat politikari eta bakegintzako ekintzaile bildu ziren, besteak beste nazioartean ospe handikoak diren sei: Kofi Annan, Bertie Ahern, Gro Harlem Brundtland, Pierre Joxe, Gerry Adams eta Jonathan Powell.

Bake prozesu bat abian ezar zedin, nazioarteko sei liderren eskutik bost puntuko bide orria zeraman adierazpena plazaratu zen. Bide orri hori ETA-ri zuzentzen zitzaion lehenbizi. Bere jarduera armatua uzteko eta Estatu espainiar eta frantziarrarekin gatazkaren ondorioen inguruan eztabaidatzea onartzeko eskatzen zion.

Aieteko konferentzian egin zioten eskariari erantzunez, ETAK 2011ko urriaren 20an eman zion amaiera 53 urteko jardunari. ETA-k borroka armatuaren behin betiko etenaldi atzeraezinaren bidez, gatazkaren konponbidea abian jartzeko eta Estatu espainiar zein frantziarrarekin elkarrizketan aritzeko prestutasuna erakutsi zuen.

Beraz, aipatu ditugu ETAREN desagertzearen arrazoi gakoak, baina ezin da aipatu gabe **utzi espainiar eta frantziar gobernuen lana**. Estatuak ETAREN kontrako borroka ETA ahuldu zuela ukatzen da.